

Euskal kulturgintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Eztabaidarako proposamen bat

LOREA AGIRRE, SORGUNEAK IKERTEGIA

Sorguneak ikertegiko kide eta bi ikerketen egile honako hauek dira:
Lorea Agirre, Julen Arexolaleiba, Andoni Eizagirre, Nekane Goikoetxea,
Jon Sarasua eta Iñaki Urruzola.

Sarrera

Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatearen baitan sortutako ikerketa taldea da Sorguneak ikertegia. Hain zuzen Euskal Kulturaren Transmisioa gradu-ondokoaren hurrengo urrats gisa hartu behar da: gradu-ondokoak euskarazko kulturaren gaineko ezagutza bildu eta zabaltzea du helburu, eta ikertegiak, gradu-ondoko ezagutza hori guztia oinarri hartuta, euskarazko kulturaren gaineko ikerketa egitea eta pentsamenduan sakonduz joatea du xede.

Hona dakarzkigun bi ikerketak ikertegiak ezagutzera eman dituen emaitza nagusiak dira orain artean. Bi ikerketa hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailarekin elkarlanean gauzatu dira. Alde horretatik, Aldundiari begirako ikerketa txostenak dira, baina euskal kulturgintzaren eremu osoa eta bertako agente guztiak hartu dira kontuan: diziplina guztiak, sail guztiak, eremu publiko zein zibilak, baliokate osoa eta beste. Horrenbestez, bi ikerketa hauek Aldundiari adina begiratzen diote euskalgintzari eta kulturgintzari, eta proposatzen dituen oinarri eta estrategiak ere

euskarazko kulturaren eremu osoa gogoan izanda diseinatu dira.

Bi ikerketa dira, esan bezala: ‘Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak’ izenekoa bata, eta ‘Kultur bizitzaren diagnostiko kualitatiboa Gipuzkoan’ deritzona bestea. Lehenak aurrera begirako ikuspegia landu du, kulturgintzaren oinarriak jarri asmoz: nondik abiatu eta nora jo beharko genukeen argitzeko ahalegin bat da. Bigarrenak, kultur bizitzaren egoera kualitatiboa ikertzea izan du helburu. Bi ikerketak, nolabait, txanponaren alde biak dira: bisioa eta diagnosia. Biek oinarri teoriko-ideologiko eta metodologiko berbera dute oinarrian. Metodologia kualitatibo bera konpartitzen dute, eta baita informatzaile multzo bera ere. Biek elikatzten dute elkar, batak bestearen zentzua osatzen baitu. Hain zuzen, euskaraz sortu, hedatu eta transmititzen den kulturaren egoera politikoa aztertzen dute bi ikerketa hauek.

Bi ikerketak osatzeko urrats nagusi hauek jarraitu ditugu: lehenik eta behin, ikergunearen aparatu teorikoa aintzat hartuz euskal kulturgintzaren oinarrizko premisak adostu ditugu. Bigarren urratsa analisi-unitateak identifikatzea izan da eta horien arabera gidoia prestatzea. Honako hama-bi analisi-unitate hobetsi dira: euskal kulturaren diakronia, produktuen nolakotasuna, kultura eta politika, kultur politikak, euskal dimentsioa kultur politiketan, kultur dimentsioa euskararen politiketan, gizarte zibilaren eta administrazioaren arteko harremanak, kultur politikaren gaineko ikuspegi eta gune adostuen beharra, produktuen merkaturatzea, produktuen transmisioa, gizarte aldaketak eta kultur identitatea, eta euskal kulturaren berogailuen identifikazioa.

Metodologiari dagokionean, ikerketa kualitatiboa da honako hau. Elkarrizketa eta eztabaida-taldeekin osatu dugu ikerketaren mamia. Gipuzkoan diharduten baina euskal kulturgintzaren osotasunean nor diren 127 aditu eta aritu elkarrizketatu ditugu. Profil eta jatorri desberdinekoak izan ditugu solaskide, jokaleku politiko eta teknikoetan dabilta-

nak, euskal kulturgintzaren gune neuralgikoetan dabiltzanak, edota kulturaren sorkuntzan eta herriko dinamika kulturaletan dabiltzanak, besteak beste. Iritzi kualifikatu horietatik eratorritakoarekin osatu ditugu euskal kulturgintzaren diagnosis, desafioak eta aurrera begirako politiken zutarrak.

Gure analisi-matrizearen argitan, jasotako iritzi guztien edukiaren analisia egin eta bisioaren ikerketari dagokionez diskurtso gaurkotu eta adostu bat eraikitzea izan dugu xede, euskal kulturak arrisku eta ziurgabetasunen garaiotan nola jokatu beharko lukeen asmatuz joateko, eta diagnosiaren ikerketari dagokionez, berriz, kultur sorkuntzaren balio-katerearen indargune eta ahulguneak identifikatu, eta aurrera begira zein urrats eman identifikatzen saiatu gara. Bi ikerketen ezaugarria da analisi kualitatiboa egiteaz gainera, errealitatea problematizatu nahi izan dutela. Ez dira ikerketa deskriptiboak, analitikoak baizik, eta horrenbestez, oinarri ideologiko baten argitan egindako lanak dira. Alegia, euskara erdigunean jarri dugu, hizkuntza eta kultura biziberritzeko neurri soziolinguistikoak oinarrian, eta, orobat, gizarte zibilaren eragiletza lehen mailan. Jasotako informazio guztia ideia-galbahe horretatik iragazi dugu eta etorkizuneko urratsak begitantzeko ahalegina egin. Ausardiaz jokatzera izan da gure hautua. Ausardiaz jokatu, ez egia bakar bat azalarazteko, hainbat ideia eta errealitatearen gaineko gogoeta konpartitua bultzatzeko baizik, eta, era berean, iritsi nahiko genukeen horretaranzko bidea marraztuz joateko. Eztabaidarako proposamen bat da. Hori da bi txosten hauen intentzioa.

‘Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak’

Oinarrizko abiapuntuak

Euskara eta, horrenbestez, euskal kultura, gizateria osoaren ondarea da. Hala, bada, euskararen berezko lurraldean

bizi garen guztion aukera eta erantzukizuna da ondare unibertsal horri eutsi eta hurrengo belaunaldiei ahalik eta bizien transmititzea.

Euskal Herrian aspaldikoa da hizkuntzen arteko ukipe-na. Euskara beti izan da hemen eta aspalditxo dira hemen gaztelania eta frantsesa ere. Oraintsu ingelesa bera ere berebiziko indarra ari da hartzen. Eta etorkin heldu berriekin batera, beste makina bat hizkuntza eta kultura heldu zaizkigu.

Joko-zelai horretan ez da neutroa zein hizkuntzatan jardun. Edozer egiten dugula, hizkuntza bat(zuk) ari gara auzatzen eta, orobat, beste hizkuntza bat(zuk) alhora uzten. Horrenbestez, eleaniztasuna lagun dugula, oso garrantzitsua da ohartzea gaztelaniak, frantsesak eta ingelesak badutela munduan zehar norik indarra eman; euskarak, ordea, inon izatekotan, hementxe bakarrik dauka sortzeko eta birsortzeko aukera.

Kultura oro da, beraz, ondare unibertsala eta kultura oro-ren bizirapen-estrategian datza ekosistemaren oreka linguistikoa. Baieztapen hori da euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarri etiko sendoena. Hortik abiatuta hartzen dute zentzua eta indarra ondoko baieztapenek ere:

- Euskal hiztunen komunitatea izan bada, eta hizkuntza da komunitate horren identitate-zeinu nagusia. «Euskaldun» hitzak berreskuratu egin behar du berezko adiera: euskara duena, alegia. Izan ere, «vasco» delakoari «euskal» esaten zaionez, euskara desagertu egiten da «euskal» delakoaren oinarrizko kontzeptualizaziotik. Urtuta geratzen da «vasco-aren» kategoriapean.
- Euskarak egiten gaitu euskaldun, eta euskaldun izateak egin, egiten eta egingo gaitu unibertsal;
- Euskara da herri honetako berezko hizkuntza minorizatua, eta beronen garapenaren aldeko ahalegina dagokie euskararen komunitateari eta botere publikoei. Horrek, kultur politika ulertzerakoan ere aldagai hau funtsezko aldagai bezala ulertzea esan nahi du.

Ikuspuntu ekologikoan funtsatzen da premisa etikoa. Premisa etiko horrekin bat eginik datoz zientzia soziolinguistikoaren ekarpen teorikoak. Aintzat hartu behar dira irakaspen horiek, ezinbestean, hizkuntzaren eta kulturaren inguruko eztabaida modu serioan egin dadin, eta, ondotik, politika egokiak abian jar daitezten. Hor dute heldulekua hizkuntza, kultura eta bizikidetzaren inguruan zehaztu ditugun premisek:

- Euskal kulturgintza da euskal identitatearen funtsezko osagaia, eta hizkuntza elikatzean, motibatzean eta gaurkotzean eragina duen jardunbide sinboliko eta funtzionala;
- Euskal kulturgintzak, kultur sormen eta kontsumotik haratago, badu eragin sakonago bat; alegia, euskal nortasunaren elikagaia izatea, izateko arrazoiak eta sinboloak elikatzea.

Euskal kulturgintzaren estrategiek beharko dute begirada instrumentala; ingurumari garaikideak, izan ere, merkatu-efizientzia, profesionaltasuna eta kalitatea exijitzen baituzkie. Baina ildo estrategikoetan begirada pragmatikoa ere behar du, alegia, bisioaren inplikazio praktikoa aintzatesiz neurri politikoaren efikaziak aintzat hartu behar du ikuspegi etiko-zientifikoaren irizpidea. Alderdi sinbolikoa, beraz, lehentasunezko printzipio motibatzaile bezala gorde eta sustatu behar da. Kultura gizartea egituratzeko, integratzeko eta identitatea osatzeko balio pragmatikoa da.

Erantsi diezaiozun orain begirada enpirikoa ere: euskara gutxiengoaren hizkuntza minorizatua da, eta euskal kultura, ondorioz, gutxiengoaren kultura minorizatua. Hori hala izateak, ordea, ez du esan nahi euskaldungoak, besterik gabe, gozatzerik ez duenik, asebetetzerik ez duenik euskal kulturak eskaintzen dionarekin une oro. Egiazki, euskal kultura euskaraz sorturiko kulturari deritzogu. Berbazko euskarazko kultura, berbazko erdarazko kultura eta ez-berbazko kultura zer diren bereiztea funtsezkoa da. Hiru kultura ka-

tegoria nagusi berezi behar ditugu, beraz, herri honetako jardunak eta kultur politikak pentsatzerakoan:

- Berbazko euskarazko kulturgintza. Euskarari darion sorkuntza.
- Berbazko erdarazko kulturgintza. Gure herriko erdara desberdinetan egiten den sorkuntza.
- Ez-berbazko kulturgintza. Berbazko materialik erabiltzen ez duten sorkuntza diziplinak.

Jakina da kategoria horiek ere (kategoria guztiek bezala) tarte lauso eta eztabaidagarriak uzten dituztela, edota definizio zaileko eremuak eta hibridoak badirela. Hala ere, ezinbestekoa da ohartzea hiru kategoria horiek tratamendu desberdina behar dutela, eta bereiztea metodologikoki ezinbestekoa dela, euskal kulturaz hitz egitea nahasmendu disfuntzional bihur ez dadin.

Berbazko euskarazko kulturaren eremuan jokatzen da bereziki euskararen etorkizuna eta horrenbestez euskal kulturarena eta euskal hiztunen komunitatearena. Ez-berbazkoen izaerak ere (jarraidura / irekitasuna) badu garrantzia «euskal» delako horren mundu sinbolikoa eraikitzen jarraitzeko.

Hiztunak eta hizkuntzak elikatu egiten dute elkar; alabaina, komunitatea da zimendua hiztuna motibatzeke eta hizkuntza bizirauteke. Komunitatea, beraz, modu dinamikoan ulertzen dugu, haren zimendu politiko, kultural eta materialak sustatu behar dituztelako euskaltasunaren arrazoibideak. Euskal kulturgintza dela-eta oso bereziki azpimarratzea dagokigu bere garabidea etorkizunean bizitasunari eta bere gizarte-ehunaren autoeraketari estuki atxikia dagoela.

Euskararen biziberritzeak, kulturen arteko orekak eta elkarbizitzarako arnaguneek, ordea, adore instituzionalaren beharrean dira. Autoritate politikoa da, hain zuzen ere, legeak onetsitako eskumenekin espazio soziala eta politikoa zedarritzea (auctoritas), herritargoak eman dion zilegitasunarekin baina herritargoaren akuilu ere izateko. Autoritateak eskutik behar ditu bisioa eta ausardia, ez bada eskumenen egikaritzea hutsa izango. Gipuzkoan erantzukizuna nabaria-

goa da, euskal kulturagintzaren erdigunea lurralde horretan delako eta kulturaren bidez datozen belaunaldiak optimizatzea aukera errealagoa ere badelako.

Hala ulertzen dugu euskal kulturagintzaren begirada instituzional eta politikoa. Euskararen hausporako eta euskara helburu sozial bezala sortutako gizarte-erakundeak dira instituzioek aintzatetsi beharreko eragile nagusiak. Euskal kulturagintzak konfiantza, identitatea eta talde-sentimendua irudikatuko baditu, instituzioen erantzukizuna eta gizarte erakundeen ardura behar ditu. Aldibereko erronka da bisio, politika eta ekimen adostuekin beste eragileen aurrean agertzea, herritar, gizarte-erakunde zein instituzioen esku-bideak eta betebeharrak aitortzaren eta aniztasunaren printzipioetan oinarrituta.

Autogobernuak elementu subjektiboak adina behar ditu elementu objektiboak ere; kultura-politikaz ari garenean eta kulturen arteko elkarbizitza arautzeari dagokionean, jakin behar du batzuei eskubideak aitortzen eta besteei betebeharrak zedarritzen, bere estrategien oinarria elkarbizitza bada bederen.

Euskal kulturagintzak propioki diseinatutako oinarri eta estrategiak behar ditu. Eragin-politikan oinarrituriko estrategiek (gizarte erakundeen arteko lehiak, instituzioen kooptazio mekanismoek, subentzioan oinarrituriko kulturak, botere dominatzaileekiko menpekotasunak) biziraupena ahuldu, biziberritzea eten eta bizikidetzakaltzea dakarte. Eragileen arteko harremana eta adostasun-eremua politika eta egitasmoen mailara jaso behar da euskal kulturagintza biziberritzeko eta arnaguneak gaurkotzeko. Oinarri orokor horietatik abiatuta, zehatzagoak diren beste hauek aipatuko ditugu:

- Merkatuak, gizarte zibil autoeratuak eta administrazio publikoak osatzen dute kulturagintzak bizi duen eremua, eta hiruren arteko harremana egokitu eta orekatu egin behar da, osagarri izan daitezen.
- Euskal kulturagintzaren oinarri estrukturalak baliabide, egitura eta profesionalak sustatu eta modu iraunkor ba-

tean bermatuko dituzten azpiegitura, neurri eta erabakiak dira.

- Gertakari objektibo bat da euskal kulturgintzaren eremu naturala orain sare soziala ez ezik sare birtuala ere badela.
- Merkatu doituia da euskararen eta euskal kulturaren izaera minorizatuak instituzioei eragiten jarraitzeko jartzen dien zelai ekonomikoa, kulturala eta komertziala: merkatuaren logikak, kultura-hizkuntzaren logikak eta sorkuntzaren logikak berak, doituia, euskal kulturgintza modu naturalean biziberritu ahal dute.
- Euskal kulturgintzak ekosistema osotu eta orekatuen beharra du, gero azalduko den moduan. Euskal kulturgintzak eskaini dezakeen onena gertutasuna, berezkitasuna eta benetakotasuna ditu. Hizkuntza zaharra izanik, asko du berri esateko, eta hori da bere berezitasunetako bat, eta bere benetakotasuna: euskaratik eta euskaraz abiatu eta igaro behar dira prozesuak.

Desafioak

Desafioen inguruko hausnarketa euskal kulturgintzaren inguruko arazoak identifikatzeko asmoarekin egin dugu, horrek gero estrategiak bistartzeko eta politikak zehazteko balioko digulakoan. Desafioak maila orokor batean planteatuz hasi eta ondotik desafioak euskal kulturgintzaren ertz desberdinetara irekiko ditugu.

Euskal kulturgintzak bere historia politikoagatik baditu aparteko desafioak. Lehen desafio bat da iragan hurbila ulertzen lagunduko diguten printzipioak eta aldagai esplikatzaileak adostea. Izan ere, euskal kulturgintza eta bereziki honi begirako jarrerak zatikatuta daude. Bistakoa den hori azpimarratzea da desafio behinena, horren inertziak busitzen baititu ibilbidea eta eragileen arteko harremanak. Azken 40 urteotan euskal kulturak izan duen bilakaeraz oso iritzi kontraerriak daude. Iritzi baikorrak edota ezkorrak,

lortu denarekiko edota lortu ez denarekiko. Eragileen lanaren garrantzia baloratzeari dagokionean ere oso iritzi desberdinak jaso ditugu.

Guztiak aintzat hartuta, arazo gisa interpretatuko ditugu, balio digutelako gero aipatuko diren euskal dimentsioari eta kultur produktuen dinamikari buruzko desafioak ere ulertzeko.

Desafioa: iraganari begiratzea

Atzera begirako diagnostikoan bat etortzea zaila izango bada, zuri bide gisa aurrera begiratu beharrarenak ere nekez lagunduko du elkarlanera biltzeko. Hori horrela, iraganari arreta ipiniko diogu. Adostasuna lortuz joateko diagnostiko baten gutxienekoak honakoak izan daitezke:

- Instituzionalizazioaren aurretik, era prekarioan izanik ere, ekimen estrategikoak bideratzen hasita zeuden: irakaskuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, euskara batua sortze- eta hedatze-prozesuan, kultur sormenean, transmisioan... Oinarriak, nolabait, frankismo garaian jarri ziren, eta gizarte-ekimenetik erabat.
- Ekimen horien izaerak berak alde aurretik geneukana deuseza zela egiaztatzen digute. Berri berri hasi behar izan zen eremu gehientsuenetan.
- Demokraziarako trantsizioa delakoak banandu egiten ditu euskaltzaleak alderdi politiko ezberdinetan. Nazionalismo historikoak instituzio gehientsuenen lidergoa hartzen du eta ezker abertzalea delakoak kontra-botere eskema elikatzen du. Beren burua abertzaletzat ez daukaten alderdi politikoek, ezberdintasunak ezberdintasun, ez dute kemen handirik agertu euskal kultura berpizteko.
- Instituzionalizazio-prozesua martxan jartzen denetik, 80tik 95era bitartean-edo, areagotu egiten dira euskaltzale instituzional eta ez-instituzionalen arteko liskarrak: mesfidantzak, ekimenen bikoizketa sinergiak bilatzeko ahaleginik egin barik... Aldibereko dinamikak eta

elkarren arteko urruntze hazkorrak egoera naturalizatu egin du, baina euskal kulturgintzaren kaltetan.

- Dinamika dikotomiko hori gainditu ez bada ere, botere/kontra-botere eskemak alde batera uztearen beharra gero eta onartuago dago.
- Ezker abertzalearen eragin-eremua gizarte zibilean apaldu, lausotu egin da azken hamarkadetan. Soziologikoki euskal kulturgintzaren hauspoa neurri batean ezker abertzaleetik gertu egonda ere, azken hamarkadetan kriminalizatzeko saioak gertatu dira kasu batzuetan. Edonola ere, hautu politikoen mugak lausotu egin dira eremu honetan, eta kulturgintzan bereziki transbertsalitate gurari bat nabarmena da.
- Erresistentzia-identitatea eta protesta-zikloa atzean geratu ei dira. Zeintzuk dira, ordea, ziklo berriaren ezauzgarriak? Horiek definitu gabe daude, sarritan gainera gainditua beharko lukeena nagusitzen da, eta iragan hurbilean gertaturikoak eztabaidatu gabe nekez lortuko da aurrera begirako irakurketa osagarriak.
- Abertzaletasun historikoaren baitako euskaltzaleak ez ditu asebetetzen instituzionalizazio-prozesuak euskal kulturari ekarri dizkion emaitzak. 30 urte boterean izan ondoren, ez da lortu euskal kulturaren zimentarri sendoak jartzea. *Cultura vasca* da substantiboa askotan eta euskal kultura adjektiboa. Euskal kultura *cultura vascaren* azpimultzo bat baino ez izatearen kontzientzia barneratua da abertzaletasun historikoaren baitako eragile askoren artean.
- Euskara elkarrekin sortutako ekimenek (hedabideak, aisialdia, kultura-eskaintza, sentsibilizazioa) beren bidea egin dute, baina ez dute, orain artean, behar besteko proiektzio bateraturik lortu euskal kulturaren biziberri-tzean; ohikoa izatera ere heldu da bisio gabe aritzea, zerbitzuen eskaintzara lerrokatzea, subentzioen menpekotasunak aukerak tratatzea, edota elkarrekin lehian ere aritzeraino iristea. Abertzaletasunak mesfidantzaz hartu

ditu euskaltzaletasunetik bideratutako ekimenok, bazuek (botereak) eta besteek (kontra-botereak) irakurketa zeharo desberdinak egin arren.

Paradoxikoa bada ere, inoiz baino hobeto gaude datu kuantitatibo zein kualitatiboekin dagokienez. Orain arte egingdakoak, ordea, zimentarri sendorik ez daukan sentsazioa dauka euskaltzale askok, joera politikoa zeinahi izanda ere. Ildo beretik, hedatzen ari da ondoko sentsazio hau ere: euskal kulturgintza anti-frankismoari atxikitako logika balio-kidea izan da, abertzaletasunarekin batera, «hizkuntza, aberria, demokrazia» hirukoa bat eginda adierazi izan dira. Horri esker lortu da indar estatalistek oraindik demokrazia-zen zuzibidearekin euskal kulturgintza erabat ez gutxieste; orduko unibertso politikoaren indar sinbolikoak zaildu egingo balu bezala orain jarrera anti-etikoak hartzea euskal kulturgintzaren aurka. Edozein kasutan, jarrera erreaktiboa da nagusiki obediencia politiko espainiarreko alderdiena.

Era berean, eztabaida kontzeptualek, ingurumari soziolinguistikoak eta kontzientzia sozialak aitortu dute sarriegitan termino lausoez justifikatu dituztela emaitzak eta estatistikak. Alde batetik, irizpide kuantitatibista sarritan gobernariene kudeaketa eta diru-laguntza justifikatzeko erabili ohi da, baina estatistikek euskaltasunaren bizitza integrala ez dute egokiro islatzen eta beraz horien operatibotasun linguistiko erreala desagokia da. Bestetik, ordea, euskalgintzan ere estatistikak sarritan funtzio kualitatiboak leuntzeko arriskua gertatu dira; adibide bat: Gipuzkoan toki-hedabideak subentzioen bidez lagundu dira eta hedabideek bete dute euskararen inguruko betekizuna, baina euskal kulturgintzaren erresonantzia-kutxa izateko aukera bera bete gabe, behar bestean. Liskar politikoak arrisku ugari ditu, badituenez, baina agerikoena ere oztopatzea da arrisku behinena. Zientziak dioenarekin diagnostiko hotz eta konpartitua falta da, eta neurri horretan, epe luzerako planteamendu bezala, politika publikoetan diskurtso bat inplementatzea ere bai.

Azken 40 urteotan egindakoak asetzen ez bagaitu ere, politik egoteko moduan egon gaitezke beste kultura minorizatu batzuk denboraldi berean izan duten bilakaera aztertuz gero. Ez da kontsolagarria, baina bada oraindik hemen badugun euskaldun izateko gogoaren erakusgarri. Euskal kulturak ez du iragan hoberik behar, etorkizuna behar du hobe. Berandu baino lehen, euskal kulturgintzak batu egin behar gaitu euskaltzaleok. Zenbat eta beharrezkoago sumatu elkarren beharra, orduan eta gertuago helburutik: euskal komunitatea birsortuz joatea aurrerantzean.

Euskaldungoaren kualitatibotasuna, azken 50 urteotako onena izanda ere, ez da gaur egun heltzen euskarak behar duen gutxieneko kalitate-mailara. Festarako eta protesta egiteko jende gehiago bildu ohi da egunero, koherente xamar euskaraz bizitzen ahalegintzeko baino! Euskararekiko aldekotasun afektiboak ez dakarkio euskaldun askori bestelako atxikimendu efektiborik egunerokotasunean: euskal prentsa irakurri, euskal produktuak kontsumitu, euskaraz bizitzen ahalegindu gertuko komunitateetan, etab. Euskara, norberarentzat baino, beste norbaitzuentzat nahi izaten da; eskubidea izan behar da nahiz eta gero norberak eskubide hori praktikan aintzat hartu ez.

Euskal kulturgintza arnasberritzeko parametroetan gizarte kontzertazioa lortzea desiragarria da, berez. Euskararen eta euskal kulturaren geroa bermatuz joateko ez da ezinbestekoa, inondik inora, abertzale izan behar izatea. Ondare unibertsal bati aurrerabidea ziurtatzen ahalegintzeak abertzaletasunaren gaineko printzipio etikoa izan beharko luke, berez. Hori hala izanik ere, ordea, lehentasunezkoa da ari garenon arteko sinergiak biltzea, horretan ere badugu-eta zer hobetua. Euskaldungoak elkarrekin ekitearekin batera, era berean, erdaldungora geurez hurbilduz joatea da bigarren erroka, erakartzen jarraitzea, abertzaletasunetik baino, euskaltzaletasunetik. Espainian ez da lehentasunezkoa hizkuntza eta kultura minorizatuon geroa bermatzeko politikak martxan jartzea. Berdintasuna lortze aldera, generoa-

ren edota ekologiaren eremuetan neurriak hartzen dituen moduan, hizkuntzen arteko bizikidetza orekatua bermatzeko ahaleginik egiten ez da hasi ere egin.

Ikusita beraz iragan hurbileko kontraesanak eta lorturikoen antibalentziak, birgogora genitzake desfiorik orokorrenak eta, neurri horretan, lauso bezain bateratzaileenak, politikoki. Ingurumari instituzionalari dagokionean, euskal komunitatearen ezagutza lortu behar da. Euskal hiztunen komunitate bat badela eta subjektu dela aitortzea eta aitortza horren bermea politika publiko eta zibiletan finkatzea lehentasunezkoa da.

- Ingurumari eragileari dagokionean, kultura politiko berri bat behar da, parte hartzea oinarri izango duena. Irekitasuna aitortu eta auto-konfiantza eragin behar da. Etorkizun hurbileko errealitate sozial berri horren tesuinguruan epe ertainerako irakurketa bat adostu beharra dago.
- Ingurumari sozialari dagokionean, komunitate horren zaintza sustatu eta lagundu behar diren kontzientzia jendarteratu egin behar da. Horretarako euskal kulturgintzaren parametro errealak, markoa eta desafioak gizarteratzea ezinbestekoa da; alegia, nola eta non gauden jakitea.

Jarrai dezagun atzera begirakoarekin, oraingo honetan eragileen arteko harremanak ulertzeko asmo zehatzagoarekin:

- Instituzionalizazio-prozesuaren aurretik gizarte zibil euskaltzalean zegoen nolabaiteko batasuna apurtu, lausotu egiten da instituzioak sortzerakoan.
- Haustura horren ondorioak (enfrentamendua, bereizketa...) denok pairatu ditugu. Euskal kulturari dagokionean, instituzioetako ekimenak eta gizarte zibilarenak paraleloak izan dira kasu askotan. Elkarrengandik aldentzeko ahalegina handiagoa izan da elkarrekin aritzeko borondatea baino.
- Gizarte zibiletik datozen proiektu eta ekimenekiko mesfidantza nagusitzen da oraindik ere. Garai batean gizar-

te-ekimenetik zetozen dinamika asko gutxietsi egin ziren. Ekimen eta dinamika instituzionalak jarri ziren abian, gizarte zibilekoak ordezkatzuz joateko. Lehia hori ez da erabat argitu oraindik. Garai batean ekimen bikoizketa izan zen moduan, orain herriko jaietako antolaketarekin ari da prozesu bera gertatzen: herritarren protagonismoa ahuldu eta enpresa pribatuei subkontratu izan zaie batzuetan.

- Gizarte zibila kohesionatu gabe dago gaur egun. Gizartearen beste sektore batzuekin alderatuta (industria edota kirola, kasu) oso kaotikoa da antolaketa. Euskal kulturaren sektoreez hitz egin ohi da, baina benetan artikulazio gabezia dago. Gizarte zibileko erakundeen artean ba al da elkarlanean aritzeko ohiturarik, gogorik? Eragile bakoitza ez al dago arduratuago bere burua aurrera ateratzen (salbatzen), elkarrekin ekimen bateratuak bideratzen baino? Euskal kulturgintzako gizarte-eragileei egin beharreko interpelazioak dira.
- Euskal kulturaren eremuan ez da hitzarmengintzaren bidetik jo, unean uneko diru-laguntzetara mugatu da instituzioen eta gizarte zibilaren arteko hartu-emanak. Elkarrekin aritzeko baino, ekimenak uneko borondatearen arabera neurri batean babesteko politika izan da nagusi.
- Bisio adosturik ez da lortu euskal kulturaren geroa lehentasunezko zat izan beharko luketen eragile instituzional eta gizarte zibileko eragileen artean. Bisio falta hori eskailerako maila guztietan sumatzen da:
 - *Kultura politikaren eta interes ekonomikoen artean*: batzuetan esplizituki eta besteetan inplizituki, errentagarritasun ekonomikoak motibaturik eta zedarriturik daude kultura-politikak eta zehatzago kultura alorreko ekimen politikoak, euskal kulturaren kalterako. Gure erakunde nagusietako aurrekontua aztertu besterik ez dago ikusteko zenbatekoa den urterik urte euskarari eta euskal kulturari eskaintzen zaion diru-kopurua. Eta, bidenabar, ohartzeko zenbat diru ematen zaion

euskarazkoa ez den kulturari. Kultura saileko aurrekontuaren zatirik handiena euskal kulturgintza sinbolikoki ere ia agertzen ez den jaialdi, zinemaldi, inbertsio eta programa handietara joaten dela ere kontuan hartzekoa da. Kulturaren kontzepzioa lantzea eta herri moduan ditugun desafio kulturalen inguruko gogoeta sakona eskatzen du kultur politikak.

- *Politikarien artean*: euskal kultura ez da agenda politikoan lehentasunekoa edota estrategikoa bezala ulertu, ez abertzaletasunaren baitan eta ezta abertzale ez direnen artean ere. Ez dago instituzioen arteko lan bateratu eta jarraiturik, eta ezta, tamalez, epe luzerako kultura-politika adosturik duen instituziorik ere. Diogunaren lekuko, azter bedi «Gipuzkoa 2020» gogoeta-prozesua. Txosten honetan darabilgun auzia ez da aldagai gisa ere aintzat hartu gogoeta estrategiko hori bideratzerakoan. Badira hamaika aldagai, baina dagokigun hau ahaztu egin da, berriro ere. Gogoetaren hezurduran jarri ezean, azken orduan adabakiak jartzen hasi beharko da noizbait norbait. Euskal kulturaren geroa, berriro ere, ez dago benetako agenda politikoan.
- *Kultura eta euskara sailtako politikarien eta gizarte zibileko eragileen artean*: gizarte zibilak auto-finantziatzeko zailtasun handiak ditu eta instituzioetako diru-laguntzen menpekotasun handia dauka. Krisi garaian, gainera, kultura izan ohi da kaltetuenetakoa.
- *Kultura teknikari (instituzioetako langileak) eta gizarte zibileko sortzaileen eta eragileen artean*: elkarrekiko aitortza bera ere falta da, askotan. Irudi bat erabilita, kultura-politikariak eta teknikariak banatzaileak bailiran ikusten dira: euskal kulturaren aurrekontu murriztuak portzio txikitik banatzen asmatzen ez dutenak. Instituzioetatik, ordea, gizarte zibilar esaten zaio diru-laguntzak ez direla berezko eskubideak, «eskale» ari direla proiektuak sakon landu gabe, etab.

- *Gizarte zibileko eragileen artean*: profesionaltasunak, zerbitzuen eskaintzara lerrokatzeak eta sarritan beren arteko lehiak zehar-kalte nabariak ekarri dituzte, herri-eskualdeetako hedabideei dagokienean, esate baterako. Kontseiluak berak gizarte-ekimenak bateratzeko, trinkotzeko daukan ahalmenari dagokionez; Topagunean biltzen diren elkarteak zerbitzuak ematen espezializatu dira, baina taldearen beraren trinkotasuna ez da behar bezain ondo elikatu. Egia da azken hamarkadetan euskararen eta euskal kulturaren azpiegiturak hazi eta sendotu egin direla. Hazte eta sendotze horretan lagundu egin dute instituzioek, ez bairik gabe. Ikuskizun dago, haatik, krisi garaiotan eta abertzaletasuna leku batzuetan boteretik aldentzen hasita, zenbaterainoko indarra izango duten euskaltzaleek, han eta hemen, egingdakoari eutsi eta erein beharrekoa ereiten jarraitzeko.

Ertz horiek sakonduz, eremuz eremuko desafio bat osatu genuke. Funtsean, beraz, euskal kulturgintzako jarduna euskalgintzatik bertatik abiatu dadin lortu behar da, ez politikarien unean uneko interesetatik. Politikak erdibanatzen du kultura, baina kulturak politika balio kohesionatzaile bilaka dezake, bizi-iraupen estrategia izan liteke adostasun sozialaren giltzarri. Baina horrek suposatzen du kulturaren irakurketa beregaina egitea, kultura inbertsio-gune bilakatzeara, sistema kulturalak duen zentzua «produkzio» bezala, identitate-emaile bezala ulertzea. Kultura gizartea egituratzeko, integratzeko eta identitatea osatzeko balio pragmatikoa izan liteke. Ezin du alderdikoia eta koiunturala izan. Interes pribatuetatik interes komunetara jauzi egin behar da, eta, komuntasun horretan, dinamika biderkatzaileak bultzatu behar dira. Euskal kulturgintzako egileak eta igorleak eragile ere badirela kontziente izan daitezten lortu behar da. Egile huts baino zerbait gehiago izatearen pentsamendua zabaldu behar da: sortze, ekoizte, kudeatze eta bideratze lanetatik harago kultura, hizkuntza eta komunitate bat elikatzen eta berregiten ari garela sinetsi behar dugu.

Desafioa: euskal dimentsioa balioztatzea

Euskal dimentsioak kultura-politikan izan duen tokia problematizatzea da bigarren desafio orokorra. Auziaren egokitasuna islatzeko, baieztatzen dugu falta dela euskararen beraren premien barnetik, ikuspegitik analisi sakona egitea. Hori helduleku dugula, arazo zehatzak hauek dira:

- Kultura eta hizkuntza bereizi egin dira eta kultura jarri da askotan hizkuntzaren gainetik. Kulturak duen dimentsio linguistikoa sarritan ez da bere lekuan jartzen, ez eta euskararekin konprometitu dagoen jendearen aldetik ere.
- Kulturgintzaren funtzio linguistikoa ez dago integratuta hizkuntza politikan.

Aintzatetsi ohi den kasuetan ere mugak ugariak dira:

- Bat da muga zientifikoa edo jakintzazkoa, izan ere, hizkuntza politikek hiztunen eskubideei soilik egiten diete erreferentzia, ez hainbeste komunitateei, euskal kulturaren unibertsoari. Eta hori ez da egokia ikuspegi soziolinguistikotik.
- Beste muga argigarri bat estrategia mailakoa da: ez dago hausnarketarik. Hizkuntza irizpideak jartzen dira, tazituki bada ere, kultur eskaintzan, baina sustapen lanari ez zaio heltzen.
- Beste muga bat da instituzionala: euskararen alorra eta kulturaren alorra bereizten diren unetik, koordinazioa ez da naturala edota funtzioak bereizi egiten dira.
- Muga politikoa ere aipatu behar da: kultur dimentsioa hizkuntza politikan ipintzeko aukera baztertu da estrategia berantiarretan.

Kulturgintzan euskara zehar-lerro moduan lantzeko aukerak handiak badira ere, ez da oraindik artikulatu. Edozein kasutan, euskararen unibertsoa euskararen esparruak mugatzen du, kulturaren sektorera ireki gabe, eta honenbestez kulturgintzan hizkuntza ez da ezinbestekoa.

- «Euskal unibertsala» kulturalki eta linguistikoki biluztuta dago. Vasco biluztua modu politikoan erabili da, batzuetan euskalgintza gutxiesteko eta besteetan identitate transhistorikoa loriatzeko. Nolanahi dela ere, euskaraz hitz egiten ez duen euskal herritarra bihurtzen ari da normaltasunaren paradigma.
- Guztiarekin, bestelako ideologizazioak ere mugak erakutsi ditu. Euskararen aldeko mugimenduan ere elementu estralinguistikoek beharko ez luketen zentralitatea izan dute askotan.
- Lehenetasun estralinguistikoek eraginda, homologazio beharra ere oztopo izan da: euskararen aldeko mugimenduan homologazioak edo hizkuntza espantsiboen egoerara iristeak garrantzi gehiegi izan du, eta euskal kulturaren egoera erreala kontuan hartu gabe egin dira maiz politikak.
- Euskal kulturgintzari egiazko arreta ez ipintzearen ondorioak asmorik onenen jarreretan ere antzematen dira. Hala, oreka eskatzea gerta liteke desoreka sustatzea. Arrisku handia dute orekaren izenean hizkuntza minorizatuak egoera horretan jarrai dezan egiten diren diskurtso eta praktikek.
- Aukera izanda ere, nekez praktikatzen da euskararen aldeko hizkuntza-lidergoa. Euskara espediente bat da askotan, euskaldungoaren aurrean itxurak gordetzeko zuribidea, eta kultura-politikan estrategikotzat jotzen diren ekimenetan, halabeharrez, euskara sakrifikatu egin da lehenetasunetatik.
- Estrategia iraunkor eta gaurkotuen falta dago; inertziaren pisua nabarmentzen da, eta, kasurik onenetan, iraganeko bidea jarraitzen da edota pertsona solteen abilezia da praktika onen ernamuina. Oro har, gainera, eragileen jokaera tazitua da.
- Hizkuntza minorizatuak eskutik du kultura minorizatu, eta beraz pobreaken sakelak zulo bi eta hizkuntza politikari kolpeak ematen zaizkio kulturaren alor zabalean.

- Aretoetako publikoarekiko obsesioaren gatibu bizi da euskal kulturgintza, oro har, eta zehazki kulturgileak eta programatzaileak. Zaletasuna ez da behar beste bultzatu. Euskal dimentsioa galtzaile ateratzen da oro har, haurren kasuan izan ezik.
- Euskalgintzan ere kontraesan bat agerikoa da. Exijentzia linguistikoak jarriagatik ere, euskaldun askok ez du horren jarraipena eta erabilpena bere gain hartzen. Publiko euskaltzalearen kontraesana da ondokoarentzat galdatzen duela gehienetan, norberarentzat eskatu ordez.
- Herriko batez bestekoa baino handiagoa izanik ere kultur taldeetan dabilen jendearen euskaldun-kopurua, askok ez dute euskal dimentsioa lantzen ari direlako kontzientziarik.
- Antzerkiaren egoera paradigmaticoa da, ikuspegi askotatik (profesionaltasuna, zaletasunaren lanketa, heziketa-eredua...). Sorkuntza elebidunaren garaiak muga handiak erakutsi ditu, eta aro bat bukatzen ari den sentipena dago sektorean. Sistema horrek ez dio batere mesederik egin euskarazko produkzioari. Euskara diru-laguntza lortzeko aitzakia bat da askotan, gauza erabat prezindiblea, baina horrez gainera diru-laguntzetako primak ez dira nahikoak euskarazko sorkuntza sostengatzeko.
- Euskaraz egitea taldeen boluntarismoaren esku geratzen da. Diru-laguntzak ez dira eraginkorrak. Aldian-aldian argudioak aldatu eta osatzen dira: krisiarekin erdaraz gehiago programatzen den bezala, publiko faltagatik ere erdaraz programatzea hobesten da.
- Egoera paradoxikoa bezain kontraesankorra da. Izan ere, politikari euskaltzaleen eragin esparrua mugatua izatearen argudio pean, heldu gara ohartaraztera politikarien marjina urria dela eta euskalgintzaren akuilu lana garrantzitsua dela.
- Pareko diagnostiko batekin osatuz, arazo garrantzitsua da gaur egun EITBren hizkuntza eredua euskal kulturaren transmisioan.

- Euskal dimentsioaren onarpena mugarri bada, birpentsatu beharko da euskara eta kultura alorren arteko lan-banaketa.
- Kultura ‘per se’ lehenestearena estrategikoki kaltegarria da. Gorago aipatu ditugun kategoriak (berbazko euskarazko kulturgintza, berbazko erdarazko kulturgintza eta ez-berbazko kulturgintza) erabili behar dira kultur politikan diszernimendu politikoa egiteko. Eredu ez-normalizatua gailentzen da euskal kultur politikan eta eragileek eredu normalizatua aldarrikatzen dute.

Desafio horiek zenbait arazo nagusi bistaratzen dizkigute, bidenabar. Halere, arazoen planteatzeak ez du atsekabea ekarri behar. Aitzitik, auziaren gaurkotasanaz ohartzeko asmoz laburtu ditugu eragileen elkarrizketa-panel zabalean ateratako kezkek.

Euskal kulturgintzak eskain dezakeen onena gertutasuna, sorkuntza endogenoa eta benetakotasuna ditu. Horien birtartez lortuko du hiztun komunitatearentzat elikagai izatea eta kanpora begira interesa piztea. Euskaraz sortzen den kulturak eremu asko ditu berri. Euskal kulturgintzak sortzen dituen edukiak eta prozesuak euskaraz behar dute izan, euskaratik sortuak, eta ‘euskaratasuna’ dutela ezaugarri. Igorleen (norbanako, erakunde zein sare) benetakotasuna funtsezkoa da; erdaraz pentsatutako produktuak euskaraz ematea ez da nahikoa, eta ez da eraginkorra; era berean, produktuak euskaraz ekoizte hutsa ere ez da nahikoa, horiek sortzeko prozesua ez bada euskarazkoa.

Politiketarako ardatzak

Kulturgintzako eragileen artean atera diren desafioak ikusi ditugu, euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko uneotan ditugun arazoak ulertzeko asmoz. Euskal kulturaren barnean euskararen eta kulturaren beraren etorkizuna bermatuko duten eremu eta diziplinak identifikatu, eta indarrak bertan jartzea lortu behar da. Euskararen motibazioa

bultzatzen duten gizarte-sareak elikatzea, gizarte-sarea bera kultur sortzailea dela ulertu eta bultzatzea, gizarte azpiegiturak sustatzea, eta euskal sorkuntzaren gune neuralgikoak zaintzea. Hurrenkera berbera errespetatuz eta desfioei aterabideak aurkituz osatuko dugu strategiaren oinarriak izatera etor daitezkeen proposamenak. Lehenik eta behin, gune eta bisioak adoste aldera gauzatu beharreko politikak, ondoren euskal dimentsioak zentraltasuna izan dezan neurri zuzentzaileak, eta hirugarrenik dinamika kulturala modu osotu batean integrazteko ildoak.

Politikak: gune eta bisio adostuak inplementatzea

Gure diagnostikoak begi-bistan ipintzen digun lehen arazo nagusia da guneak eta bisioak adosteko dagoen premia orokorra. Horren kontzientzia hartzeko eta adostasunak gorpuzteko, hauek dira prozedura zein eduki aldetik diseinatu eta inplementatu daitezkeen neurri batzuk:

- Eragile guztiek gogoeta egin eta aurrera begirako ikusmoldeetan ikuspuntu komunak adosten ahalegindu behar dute.
- Elkarrenganako konfiantza berreskuratzea komeni da. Instituzioak vs gizarte zibila dikotomiak ez du mesederik egiten.
- Ekimena eta aitzindaritzza gizarte zibilean izatea komeni zaigu, nahitaez. Instituzioen egiteko behinena azpiegiturak jartzea da, behetik gora sortzen den euskal kultura sustatzea: azpiegiturak garatzea, gizarte zibilaren dinamikak laguntzea eta babestea.
- Premiazkoa da euskaltzaleok elkarren aitortza egitea, elkarren beharra dugula aldarrikatzea. Ekimen bateratuak martxan jartzea lehentasunezkoa da (irakurtzaletasuna bultzatzean, euskal kulturaren kontsumoa haztean...). Edozelan ere, sormena eta ekimena ez da erneko eta bi-ziagotuko hartu-eman horiek bideratzeagatik bakarrik; sortzaileak sortzeko berezko espazioa behar du, sinergien

eta hartu-emanen sinkroniak erraztu ala korapilatu egin dezake bere lana, baina sormena ezin da inondik antolatu, ezin du inork alde zurretik ziurtatu. Hartu-emanen aberastasunetik elika daiteke, inondik elikatzekotan.

- Instituzioen eta gizarte zibilaren arteko hartu-emanetarako hitzarmengintzaren bidea hobetsi behar da. Hitzar-menak egin behar dira azpiegiturak eta baliabide estruktural estrategikoak ziurtatzeko. Hala ere, kontuz ibili behar da ohikerian ez erortzeko; behin azpiegiturak ziertuta, bertan goxo, lo ez geratzeko. Eta kontuan hartu behar da kultura-aurrekontuaren hartzaileak ezin direla alde zurretik erabat definituta egon hitzarmen bidez, modu horretara jokatuz gero ez bailitzaieke biderik zabalduko ekimen berriei.
- Eragile guztiek elkarrekin aritzea da helburua, bisioak adostuz joatea. Instituzioetako politikari, teknikari eta gizarte zibil autoeratuako ordezkarien artean lankidetzaz sustatu behar da. Katebegi horiek elkarrekin lotuta daude, baina maila bakoitzak badu berezko izaera ere. Instituzioekiko hartu-emanetan aurrera egiteak ala ez, esate baterako, ez dauka berez zertan oztopo izan gizarte zibileko ekimenek elkarrekin aritzeko, horien artean sinergiak lortzeko. Zenbaitetan, gainera, errazagoa izan ohi da ados jartzea zerbaiten kontra egiteko, ekimen positiboak bideratzeko baino.

Egiazki, neurri guztiak ere ulergarriak bezain nabariak izan arren, euskal kulturgintzak uneotan premia du bere historia hurbilean gertaturikoa bere gain hartzeko eta bide-nabar adiskidetzak, guneen osatzeak eta bisio adostuen gainean aritzeak biziberritzea ekarriko diola ohartzeko. Ilusiorako grina pizteko aukera ere izan litezke prozedura mailako mekanismo politiko horiek. Elkarlan horrekin soilik erantzun ahalko dira eginkizun nagusiak, alegia:

- Hitzun komunitatearen aitortza egitea.
- Administrazio publiko eta gizarte autoeratuaren arteko kulturgintzaren gaineko bisioa adostea.

- Administrazio publiko eta gizarte autoeratuaren arteko harremana eta lankidetzaren artikulatzea.
- Euskal kulturagintzaren berogailuak identifikatzea. Iritsi nahi dugunera iristeko lagungarri, are ezinbesteko diren ekimenak identifikatu behar dira eta, izaera estrategikoa aitortuta, beharrezko bultzada eman. Ezin da ahaztu zer aportatzen dioten kulturagintzaren eragiletzari, irudikari kolektiboari.
- Diru publikoen lehentasunak markatzea. Kulturagintzaren diru publikoen banaketa egokia egiteko eta irizpideak adosteko ezinbestekoa da kultura, kultura-politika, euskal kultura nozioak auzi bezala argitzea.
- 'Barne' kultur politika zehaztea, alegia, euskal nitxorako politikak kulturagintzarentzat, kultur industriarentzat eta 'barne merkatuentzat', azpiegitura eta baliabideei dago-kienean, merkatu propioan ikusgarri bihurtzeko, arreta ipiniz transmisioari familian, hezkuntzan, komunikabi-deetan, kontsumo joeretan eta oro har sozializazio-gu-neetan.
- 'Kanpo' kultur politika zehaztea. 'Merkatu handirako' politikak:
 - Merkatua doitzea (subentzio, label, babes ekonomiko, egitura babes...): euskal kulturagintza zabaldu eta ikusgarri egiteko.
 - Merkatuan administrazioaren esku-hartzea irizpide soziolinguistikoen arabera, hura baldintzatzeko.
 - Subentzio politiken exigentzia linguistikoak finkatzea: euskarazko kultura ekimen ez direnei exigentzia linguistikoak jarritz.

Neurri horiek guztiak nekez gauzatu ahalko dira euskal kulturagintzak gune bat eta bisio bat izan ezean, hau da, eragileek euskal kulturagintzaren inguruko ekimen bateraturik ezean. Elkarlanak ez du soilik konfiantza ereiten, ausardiarako babesa ere eskaintzen du.

Politikak: euskal dimentsioa modu beregainean trazatzea

Desafioen parez pare, euskal kulturgintzaren estrategiak diseinatzeko printzipio politikoak euskal dimentsioari zentraltasuna ematean oinarritu behar dira. Funtsean, eremu soziokulturala ardatz hartuta, antolakuntza sektorialak osatzea eta elkarlana bultzatzea lortu behar da. Hauek dira bil-dutako neurriak:

- Euskararen beraren premien barnetik, ikuspegitik, analisia egitea.
- Kulturak duen funtzio linguistikoa balioan jartzea eta kultur eragile zein jendar-tean sozializatzea.
- Indarrean dauden paradig-mak zeharbidez euskararen benetako garabidea ez dutela bermatzen aitortzea eta, beraz, euskal kulturaren aldeko politiken lehentasuna aldarrikatzea.
- Euskara eta euskal kultura ardatz izango dituen mugimendua artikulatzea.
- Euskararen egoera minorizatu errealean oinarritutako kultur politikak egitea.
- Oreka-desoreka eztabaida labaingarriari darion maltzurkeria bistaratzuz, diskurtso indartsu bezain jantzia sozia-lizatzea.
- Euskal kulturaren aldeko kultur politika eraginkorra artikulatzea eta kulturen arteko orekak bere gain hartzea egungo egoera desorekatua. Hala, bada, biziberritzea eta arnaguneak zabaltzea modu orekatzailean egitea lortu behar da.
- Iraupen luzeko eta gizartearen aintzatespena izango duen euskal kulturaren aldeko estrategia ongi artikulatzea.
- Elkarren osagarri izango diren hizkuntz politika eta kul-tur politika artikulatzea.
- Birpentsatzea non dituen indarguneak euskal dimen-tzioak eta horren araberako kultur politikak abiaraztea.
- Kultur kontsumoa zein praktika bultzatzea eta gutxitzen saiatzea euskaldunen kontraesan eta gezur sozialak.

- Kultur eragileengan euskal dimentsioa lantzen ari dire-lako kontzientzia zabaltzea.
- Euskararen aldeko hizkuntza-lidergoa indartzea maila guztietan, tokikoan zein nazionalean.
- Euskal antzerkigintzan indarrean egon den kultur ere-dua birpentsatzea eta arrakastatsuak diren beste esparruetako irakatsiak aplikatzea.
- Politikari euskaltzaleen eragin esparrua mugatua da eta euskalgintzaren akuilu lan eraginkorra baliagarria gertatzen zaie eragin ahal izateko, beraz, garrantzitsua izango da norabide berean joatea.
- EITBren hizkuntza-eredua birpentsatzea beharrezkoa da bere sortze-helburua beteko bada. Helburu hori estrategikoa da euskal kulturarentzat.
- Eredu ez-normalizatua gailentzen da euskal kultur politikan eta eragileek eredu normalizatua aldarrikatzen dute. Tokian tokiko egoera kontuan hartu beharko da ahalik eta eraginkorrenak izateko kulturaren euskal dimentsioari dagokionez.
- Erabakitzea noiz eta nola erabili behar diren erdarak erakarmena helburu dutela.
- Kulturgintzaren funtzio linguistikoa integratzea hizkuntza politikan.
- Kulturgintzan euskara zehar-lerro moduan lantzeko aukerak baliatzea.

Politikak: kulturgintzaren irakurketa osoa elikatzea

Kulturgintzaren irakurketa oso batek eskatzen du euskal kulturgintzaren irakurketa beregaina egitea, baina kulturgintza dinamika oso bezala ulertzea ere bai. Bizi gaituen garaia-
ren neurriko azpiegitura eta diskurtsoak gaurkotzea, herritarren kontsumo zein aisialdi-ohiturak iraunaraztea, hedatzea eta bere kasuan eraldatzea lortu beharreko helburuak dira.

Lehen gogoeta-eremu bat nolakotasunari begirakoa da. Politika orok egiaztapen hau barneratuta aritu behar du: euska-

razko produktuak erakargarri egiteko bidea ez da beste kulturretako produktu salgarriak imitatzetik etorriko; euskal kulturgintzaren muga kuantitatiboek hein berezian derrigortzen dute produktu berezituak diseinatzera eta neurri bereziak inplementatzera. Hemen bi elementu osagarri elikatzen dira:

- Alde batetik, bertakotasunari darion berezkotasuna eta horrek duen sozializatzeko aukera dira uneotan erakarpen modu sendoena.
- Bestetik, sorkuntzarekin batera aurrenekoz bederen komertzializazioa ere euskaraz soilik gauzatzea.

Dinamika horretan, merkatua ere bada aintzat hartu beharreko alor bat. Merkatua eta horri begira hartu beharreko neurriak erabakigarriak dira. Ezinbestekoa da botere publikoaren interbentzioa, xede dituen efektu ekonomikoa (sortzaileei biziraupena) eta kulturari sare sozialetan barneratzeko aukera (masa kultura), gutxienez, instituzioetatik aukerak berdintze aldera. Neurri politikoek xede bezala, ordea, merkatu doitu behar dute, ez dena interbentzio publiko hutsa eta ezta ere penetrazio sozial hutsa ere, sortzailearen betekizuna eta kultur eskaintzaren kalitatea kamustuko ez badira. Bere neurrian merkatua bada kalitatearen galbahea.

Horren diseinuak lehiakortasuna bermatzea printzipioetako bat behar du. Kultur produktuen berezitasunetako bat, oster, beren indar sinbolikoa da, eta neurri horretan bideragarritasun integrala eta gardena errespetatzea ere bada interbentzio publikoaren printzipio motibatzailea. Esandakoaren osagarri bezala, kultura-politiketan nabariegia izan ohi da lehiakortasuna eta errentagarritasuna parez pare jartzeko arriskua.

Oreka zail horretan adostu eta gauzatu beharko dira euskal kulturgintzari begirako estrategia politikoak. Bidenabar, eginkizunaren garrantzia eta bere inplikazioak tarteko, kulturgintzaren esparruetan eragiten dutenen lankidetzeta da funtsezko oinarria. Euskal kultura-sistema da iparra, izan ere, neurriek eragina baitute zabalpen politikan, kultur produktuen banaketan, hedapenerako eta kontsumorako zirkuituetan, eta zaletasunaren sustatzean.

Era berean, aintzat hartuz beti ere aldaketa teknologikoak, euskal kultur sortzaileen artean joera autoeraturako ekimenak (zirkuitu alternatiboak eta dibertsifikazioa) eta ikusgarritasunean marka beregainaren garrantzia, diseinu eta inplementazio politiketan ondo definitu beharko dira eragileen ardura eta eginkizunak; antolaketa burokratikoa bezain arriskutsua gerta liteke ekoizle zein sortzaileengan gainkarga barreiatzea, edozein izaeratakoa dela ere.

Merkatuari begirako ekimenekin batera, euskal kulturgingtzak berezkoa eta beregaina behar duen dinamiketan, transmisioa da ziurrenik elementu motorra. Merkatuan eragiteko transmisioaren eremuan jokatu behar da lehendabizi. Lehen hurbilketa bezala, hedabideak, hezkuntza eta beste gune sinbolikoak dira transmisioari begirako espazio estrategikoenak.

Hedabideei dagokienean, modu zehatz bezain estrategikoan komeni da batzuek eta besteek eginkizun dutena erabakitzea, eta orobat instituzioetatik horretarako neurriak hartzea ere. Nekez ahal zaie parekoa eskatu euskalgintzako euskarazko hedabideei, erdalgintzakoei, eta hedabide publikoei, baina batzuen eta besteen nortasuna eta erabakimena aitortuz, instituzioek badute horiekin negoziatzeko ardura; horretarako, euskaltasuna, bizikidetzeta eta zerbitzu publikoa dira, hurrenez hurren, aipaturiko hiru hedabideei euskal kulturgingtza sustatzeko eta horrekin konpromisoa izan dezaten arrazoitu beharreko printzipio gidak.

Hezkuntza sistema ere beste sozializazio-gune inportante bat da. Gaztetxoak hezteko zein belaunaldien arteko transmisioa eragiteko bezalaxe, bertatik igarotzen dira euskal kulturgingtzaren etorkizun hurbileko sortzaileak, herritarrak, kontsumitzaileak ere. Ildo beretik, hezkuntza arautuari ardurara oro kargatu gabe, ez-arautuari begirakoa ere bada zaindu beharrekoa, ahal dela bien koordinazioa zainduz; batean zein bestean erantzukizuna erabakigarria bada, horrez gainera, azkenaldian bistaraturiko emaitzak (derrigortasunaren ajeak, gune ez-arautuetan antzemaniko defizitak) eta gertakariak (bizitza-estiloen banakotzea) ere ondo ulertu beharko dira.

Horrek, baina, ez du suposatu behar estatutu instituzionala izan baduten gune sozializatzailen gutxiespena. Zentzu honetan, aintzat hartzekoak dira hezkuntza-arloan egon badiren azpiegiturak eta programak, hizkuntza-normalkuntza xede dutenak. Beren potentzialtasuna aitortu eta dimentsio kulturala nabariago integratu beharko lukete, kultur produktuen ikusgarritasuna eta optimizazioa bultzatuz. Hizkuntz gaitasunarekin batera, irakasleen transmisio-gaitasunak euskal dimentsioa eta kultura, sentikortasuna eta kidesun-sentimendua ere bildu behar ditu. Bere neurrian, euskal kulturgintzari berezko izan zaizkion gune publiko eta tradizionalak ere balioztatu behar dira, hala nola, kalea, paisajea, espazio birtualak, sozializazio guneak, jaiak euskararen eta euskal kulturaren izaera identitariorekin lotzea. Gauza bera esan liteke erreferentzialtasun publikoa duten ekimen, instituzio eta pertsonaiei buruz ere.

‘Kultur bizitzaren diagnostiko kualitatiboa Gipuzkoan’

Gipuzkoa: euskararen lurraldea

Gipuzkoa dugu, dudarik gabe, Euskal Herriko gune geografiko euskaldunena, bai mapa fisikoari begira, baita eremu sozio-kulturaleri begira ere. Gipuzkoa da era berean euskararen aldeko atxikimendua erakutsi duen komunitate erabakigarriena. Sustraitu, iraun, berritu eta egokitu den euskal hiztunen komunitatearen zati garrantzitsu bat Gipuzkoan dago.

Gipuzkoan euskaldunak %49,1 dira (291.000), EAEko euskaldun guztien %26 (557.700 lagun). Euskaldun pasiboak, berriz, %15,6 dira, Kulturaren Euskal Behatokiaren 2008ko datuen arabera. Alegia, datu horien argira, %64k euskaraz daki edota ulertzen du. Euskal Herriko datuekin alderatuta, kontuan hartzeko moduko zifra da. Gipuzkoan bizi da, zifra proportzionaletan, euskal hiztunen komunitatearen gehien-goia. Hori hala izanik, pentsatzekoa denez, euskal kulturaren

sormenaren eta kontsumoaren zati handi bat Gipuzkoan bertan daukagu.

Gipuzkoako euskaldunen %64 inguruk (186.240 lagun) euskal musika erosi zuen edo eta euskal kontzertuetara joan zen 2008. urtean. Hala jasotzen du 'Kultura ohiturak, praktikak eta kontsumoa, EAEn, 2007/08' txostenak. Modu berean, %52,8 (154.000 bat lagun) euskarazko antzerkia ikustera joan zen eta %37,6k (109.000 lagun) euskarazko liburuak irakurri zituen. Datu handiak dira inondik ere, aditu eta arituen pertzepzioekin erabat bat ez datozenak. Baina, egia da euskal kulturaren kontsumoa Gipuzkoan ematen dela bereziki, ez hainbeste euskaldun gipuzkoarrak euskal produktuekiko fidelitasun edo kontsumo ohitura finkatua dutelako (Arabian euskaldun gutxien izanik, euskaldun kopuru horren ehuneko handiagoa da euskal produktuen kontsumitzailea), baizik eta proportzionalki euskaldun-dentsitate handiena duelako.

Datu bakan horiek ikustea nahikoa da konturatzeko Gipuzkoak zein presentzia, indar, aukera, ingurune, zoru eta abagune duen euskarazko kulturaren eremuan aitzindari jokatzen. Berez, dagoeneko, hala da: bertan direlako euskarazko produktio gunerik indartsuenak, sortzaile kopururik handiena eta kontsumitzaile gehienak, zifra absolutuetan. Ingurumaria horrek guztiak garamatza pentsatzera euskal kulturaren aldeko politika aktiboa eta berezkoa, nonbait izatekotan, Gipuzkoan bertan jarri behar dela abian. Aurrera egitekotan euskal kulturak, Gipuzkoako administrazio publikoari eta gizarte zibil autoeratuari dagokigu, lehenengo eta behin, euskarazko kultur politika bat adostu, diseinatu, abian jarri eta, helburuak lortu ahala, bidea erakutsiz joatea euskararen gainerako lurraldeetan ari diren eragileei eta administrazioei.

Erronka da Gipuzkoako eragileek aitzindaritzaren beren gain hartzea, eta lidergo hori euskal kulturaren oinarri diren euskararen herritar zein eragile guztiarekin konpartitzea. Gai hori egin behar dira iraganeko egitura zaharrak, lidergoak eskatzen du administrazioek naturalizaturiko errealitateak gainditzeko ausardia, euskal kulturaren unibertsoa osota-

sun bezala hartuta erabakitzea. Kultura politiko eraginkor-
 rrak ezaugarri horiek lituzke: aitzindarritza, elkar hartuta
 aritzea, eta iparra euskararen herria delarik eragitea.

Ildo beretik, Gipuzkoa lurralde berritzailea izan liteke, ja-
 sangarritasuna eta ongizatea ipar duena, euskal kulturaren
 gune sinbolikoa dena. Lurraldean berezko nortasuna duten
 eskualdeak eta hiriak daude. Lurraldea antolatzeko eredu
 orekatua diseinatzea helburu bada, euskal kulturaren arti-
 kulazioa estrategikoa izan liteke.

Horretarako Gipuzkoako gizarte autoeratuak eta adminis-
 trazio publikoek bisio adostu bat barneratu, bilguneak fin-
 katu eta praktika politiko eraginkor bat egiteko moduan
 egon beharko lukete, euskal hiztun komunitate bat izan ba-
 delako, eta neurri batean bederen artikulatua dena. Alegia,
 bertako kideek badute elkarren arteko ezagutza eta perte-
 nentzia sentimendu kontziente edo inkontzienteagoa. Mi-
 norizaturiko hizkuntza eta kultura baten aldeko politika po-
 sitibo eta berrindartzaileak eginez, euskara eta euskarazko
 kultura aitzinaratzea, parametro bizigarriagoetara ekartzea
 lortuko da. Horrekin guztiarekin batera, eremu urriko bes-
 te hizkuntza eta kultura batzuen biziberritzeari begira ere,
 ekimen praktiko eredugarrien erakusle izaten jarrai dezake-
 gu mundu gero eta globalizatuago honetan. Hurrengo ha-
 markadetan, izan ere, jatorrizko kulturen geroa bermatuz
 joatekotan, denok izango baitugu denon beharra, gero eta
 nabarmenago, gutako bakoitzaren etorkizuna gainerakoe-
 nak elikatuko edota mugatuko baitu.

**Kultur bizitza: nola sortzen dugun, nolakoa den
 sortzen duguna eta nola hedatzen dugun**

Nola sortzen dugun

Azken 30-40 urtean indar handia jarri da kultur diziplina
 guztietan, baina emaitzak ez dira berdinak denetan, izan ere
 garapen-ereduak diferenteak izan baitira: batzuk instituzio-
 nalagoak, bestetzuk zibilagoak; batzuk eratuagoak, beste-

tzuk atomizatuagoak. Ikerketan egiaztatuko dugu aldagai horiek badutela euskal kultur bizitza esplikatzeko sendotasun teorikoa. Egiazki, ezin azaldu daiteke kulturaren garapen hori instituzioen eta gizarte zibil autoeratuaren ekarria kontuan izan gabe, sarriegitan nor bere aldetik, eta are bata bestearen kontra, ibili bada ere.

Euskara hegemoniko izan den kultur adierazpide eta guzuek produktuen kalitate eta zabalkunde maila handiagoa izan da. Hori konstatazio argia da. Bertsolaritza kasu. Aldi berean, bi hizkuntzetan jardun duten kultur diziplinatan, gaztelera bihurtu da hegemoniko, bai sorkuntzan bai zabal-kunde aukeretan. Antzerkia adibide.

Bi diziplina konkretu horien bilakaera aztertuta, kultur politika eta kultur garapen eredu biren paradigma direla ikus daiteke. Hori hala dela konturatzeak bidea zabal diezaguke ulertzeko euskal kulturaren, kultura minorizatu baten, garapena bideratzeko giltzarriak zeintzuk diren.

Bertsolaritza eta antzerkia: bi eredu

Konpara ditzagun eredu biak: bai bertsolaritza eta bai antzerkia taula gaineko eta zuzeneko ikuskariak dira. Inprobisazioa oinarri duena lehena, eta testu landua zein inprobisazioa bigarrenak. Biek ala biek, zuzeneko emanaldi huts diren heinean, emaitza bakar, berezi eta beti desberdina eskaintzen dute. Alde horretatik, elkarren hurbil dauden bi diziplina dira. Begirada diakronikoa kontuan izanik, tradizio partekatu baino desberdinetik datozela esan behar da. Bertsolaritza herri kultura izan da, eta da, zentzurik tradizionalenean. Gerra aurretik, eta ondoren, 60-70eko hamarkadetan, gutxi asko bere izaera eta eragin eremua tradizioan, herri mailan, gune jakinetan eman da.

Antzerkiak, aldiz, bai gerra aurreko pizkundean, eta baita 60-70eko hamarkadetan ere, euskal kulturaren eta euskararen beraren adierazgarri behinena izateko bokazioa izan zuen. Gerra aurretik euskarazko antzerkia antzokian, hi-

rian, eman ohi zen, eta 70eko hamarkadan esperimentazioaren eta abangoardiaren bidea jorratu zuen.

80ko hamarkadako erakundetze unera oso egoera desberdinetan iritsi ziren biak: bertsolaritza tradizioan eta nekazal guneetan itxita, eta antzerkia amateur mailako sare zabal batekin eta esperimentazioa lantzen. Orduz geroztikako bidea desberdina egin dute. Ibilbide horren aztertzeak erakusten dizkigu kultur bizitza emankor eta sortzailearen gako batzuk. Bertsolaritzak batu egin ditu bertsolaria eta bertsozalea elkarte zibil batean. Hala jakatuta, profesionala eta zalletua maila berean jarrita, sormena sustatu du eta publiko aktibo bat sortu. Biziberritzearen gakoak hiru zutabetan eraiki dituzte: transmisioa (bertso eskolak), hedapena eta sustapena (komunikabideetan sozializatzeko lana) eta jakintza (ondarea jaso eta ikerketa bultzatu). Eliteko bertsolariek ahots propioa eraiki duten arren, taldetasunaren ikuspegia izan dute, taldetasunaren lidergoa bultzatu dute.

Antzerkian, berriz, antzerki talde gehienak, erakunde publikoek hala proposatuta, amateurismoa utzi eta konpainia profesional bihurtu ziren 80ko hamarkada horretan. Horrela jakatuta, lanbidearen beraren aitortza lortu zuten eta bizibide gisa aritzeko aukera eman zitzaizkien. Kultur politika berdina aplikatu zaizkie gazteleraz zein euskaraz aritzen ziren taldeei, oro har. Egia da euskarazko obrari laguntza gehigarria ematen zaiola, baina horrek ez du askorik eragin antzerkia euskaraz jorratzeko. Taldeek euren kontzientziagatik egin ohi dute euskaraz, ez laguntza publikoen onurengatik. Azken hamarkadetan taldeen militantziak bermatu du euskararen presentzia antzerkigintza profesionalean.

Esan nahi baita, eremua bi hizkuntzetan jorratu dela, baita bestetik (kultur politikan, zirkuituan...) bereizi gabe. Ustez simetria horretan, asimetria linguistiko soziala nagusi denean, gaur da eguna gaztelerazko antzerkia nagusi dena eta euskarazkoa egoera larrian dagoena. Euskarazkoa zirkuiturik gabe geratzen da gaztelerazkoaren bertsioa den guztietan. Merkatuak, programatzaile askok, gaztelerazkoa,

jatorrizkoa, primatzen baitute, eta publikoak berak ere bai, originala itzulitakoa baino hobea izan ohi delako. Transmisioa ez denez jarraikorra izan (Antzerti eskola desagertu zen eta ordezkorik ez du izan) ez dira profesional ikasiak sortu. Dauden ereduak bakanak dira, talde profesionalek antolatu dituzte eta ez daude behar bezala artikulatuta. Zaletuen eremuan ere transmisioa ez da jarraikorra izan: ez da belau-naldi berriak antzokira ekartzeko egitarau jarraikorrik izan. Eredu desberdina izan dute bertsolaritzak eta antzerkiak: bata proiektukako diru-laguntza publikoekin bizi da, bestek hitzarmena du administrazio publikoarekin.

Antzerkiak zirkuitua herrietako antzoki sarean du, eta kultur politiketarik primatzen diren irizpideak (montaje handiak) garestiegi eta handiegi dira, usu, gero zirkuitu horretara eramateko. Bertsolaritzak zirkuitu desberdinak ditu, neurri eta taxu desberdinetako ikuskariak eskaintzen dituen heinean (antzoki, kultur etxe, gaztetxe, pilotaleku, taberna, elkarte, kongresu eraikin, kale...).

Gainera, Bertsozale Elkartearen klabe berberak dituzten herrietako bertso eskolak daude. Horixe ikusi dugu Hernaniko Bertso Eskolan, esate baterako. Aipagarria da herriko bertso programazioa bertso eskolaren esku dagoela hein handi batean Hernaniko kasuan, lankidetzeta sendoa baitago rol eraikitzailea duen udal sailaren aldetik. Hernaniko bertso eskolak zaletasunean du oinarri eta herritarrei eskaini nahi die zaletasun horren poza.

Bertsolaritzak boluntario talde handi baten laguntza du. Antzerki profesionaleko langile guztiak dira profesional (bizibide dute), hasi sortzaileetatik, aktore, zuzendari, eszenografo, argilari, bitartekari, programatzaile, muntatzaile, antzokiko langile... Bi diziplinen gaur egungo egoera desberdina da: bertsolaritza osasuntsu dago, inoizko publiko handienarekin (txapelketa nagusian bederen) eta eliteko bertsolariak erreferentzia publiko, kultural eta linguistiko argiak dira: sortzaile izateaz gain kulturgile dira, alegia, euren buroa euskarazko kulturaren ekosisteman kokatzen dute.

Euskarazko antzerkia gaztelerazkoaren mende geratu da. Euskarazko ikuskariak muntatzea taldeen sentsibiltate eta borondatearen esku baino ez dago. Merkatua itxia du, gaztelerazkoak jan diolako, eta, antza, bi hizkuntzetarako kultur politika bera aplikatzearen garaia amaitu egin behar da, euskarazkoaren egoera konpondu nahi bada bederen. Sektorearen hitz literalak dira: sorkuntza elebidunaren garaia bukatu da. Sistema horrek ez dio batere mesederik egin euskarazko produkzioari, eta gutxika-gutxika urrituz joan dira euskarazko estreinaldiak. Premiazkoa da euskal antzerkigintzan indarrean egon den kultur eredia birpentsatzea eta beste paradigma bat garatzea.

Euskara erdigunean jartzea, hegemoniko izatea edo ez izatea, funtsezko aldagaia da bi ekimenok alderatzerakoan. Ez da aukera linguistikoko hutsa, hizkuntzaren aukeraketa kontzienteak hainbat ondorio baitakar berarekin. Alegia, ez da berdin gaztelerazko antzerkiarentzako politika bat diseinatzea edo euskarazkoarentzat. Egoera, premiak, baliabideak, baldintzak eta ezaugarriak desberdinak izateaz gainera, hizkuntza espantsiboak hizkuntza minorizatuak jan egiten duelako, eta, horrenbestez, kultura handiak txikia. Eredua bera ere, antzerkian eta bertsolaritzan, desberdina da: bata herrikoia, behetik gora eraikia; bestea instituzionalizatua, goitik behera diseinatua.

Baina ereduaz harago, hizkuntzak markatzen du diferentzia: nola egiten dugun horrek nolakoak garen esaten baitu. Hau da ondo ulertu beharreko tesia: euskara kontzienteki erdigunean jartzeak beste modu bateko eredu eta kultur politikagintza eskatzen edo ekartzen du halaberharrez:

Euskararen premiei erantzun beharrak hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa kontuan izatea dakar.

- Euskararen egoera ez normalizatuak profesional zein zaletuak biltzeko ezinbesteko beharra du baldin eta aurrea egingo badu, eta hortik behetik gorako ereduaren egoitasuna (zaletuak elikatu behar dira sortzaileak izango badira).

- Euskara erdigunean jartzen duen diziplina orok transmisio bideak antolatzea ezinbestekoa du, transmisio naturala oso eremu gutxitan ematen baita.
- Euskara erdigunean jartzen duen edozein diziplinak merkaturatze eta hedatze sistema propioa landu beharra du.
- Euskara erdigunean jartzen duen edozein diziplinak administrazioarekin elkarlana ezinbesteko du.
- Euskara erdigunean jartzen duen ezein diziplinak euskararen eta euskal kulturaren eragile eta sustatzaile izan behar du, eta horrela izanik kultura biziberritzeko gune estrategiko bihur daiteke.

Nolakoa den sortzen duguna

Oro har, esan liteke euskal kultur produktuak kalitatezkoak eta duinak direla, inguruko kulturetakoak diren hein berean, kopuru eta guneetan eskaintza erabatekoa eta orekatua ez badu ere. Egia da, euskaraz izateak ez du produktu bat on egiten, baina kalitatezko produktuak badirela, eta asegarriak direla, ezin ukatuzkoa da. Egia da era berean, kantitatearen aldeko apustua egin dela hainbat eremutan, euskararen beraren premien urgentziak hala eskatuta, eta hainbat diru-laguntza politika horretara bideratu direla. Horrela jokatzek produktuak argitaratzeko edo plazaratzeko erraztasuna ekarri du, eta, zenbaitetan, baita errazkeria ere. Izan ere, kantitatearen aldeko apustua izan da orain artekoa euskararen eta euskal kulturaren bidean. Ziurrenik horrela behar zuen izan, gainera, nola berreuskalduntzean, hala kultur produktuen ekoizpenean. Kalitatearen garaira iritsi gara orain: zenbat garen edo zenbat sortzen dugun baino, garen eta dugun horretan kalitatezkoari lehentasuna nola eman pentsatu behar da. Hala ere, ezin ahaztu daiteke kalitatea izan dadin kantitatea egon behar dela, jarduna, katea, jarraikortasuna.

Bai kopurutan eta bai kalitate mailan zein diziplinak egin duen bide gehiago edo gutxiago hiru ezaugarri markatzen

dute. Hemen dautza aurrera begirako praktika on batek aintzat hartu beharreko gakoak:

- Euskara beregaina eta erdigunean izan den diziplinetan egin du aurrera euskarazko kulturak, lehenago argitu legez.
- Norberaren sormena gakoa denean, eta produkzio azpiegitura handirik behar ez den diziplinetan, askoz gehiago produzitu da: literaturan eta musikan. Azpiegitura handiak behar dituztenetan (zinema, antzerkia, ikus-entzuzkoak) urrats motzagoak egin dira. Inbertsio handia eskatzen duten diziplinei gizarte zibiletik erantzutea zaila da.
- Soilik merkatuari begira edo merkatutik bizi den sortzailetza duten diziplinek urrats txikiagoak eman dituzte.

Literatura izan da azken hamarkadetan euskal kulturaren gurdi eta erreferentzietako bat, baina orain ez da hainbeste. Kultur industriak garatuen duen eremua da, sortzaileen katea ez da eten, belaunaldi berriak badatozelako. Produktuei bideratutako diru-laguntzen politika publikoak industriari lagundu egin dio ugaritasuna lantzen, eta ugaritasunak, bere horretan, kalitatea ekarri du. Aipagarri da, halaber, sortzailea ez dela merkatuari begira bizi. Merkatutik ezin bizi izanak, ordea, presiorik gabeko sormen hutsezko literatura egitea ahalbidetu dio. Baina, aldi berean, arnas luzeko obrak idazteko aukera gutxi dago, laguntzak ez zaizkiolako sortzaileari ematen.

Profesionalekiko begirada horretaz gain, zaletu edo amateur mailan bada publiko bat, herrien planoan, irakurle taldeen bitartez bistaratzen zaiguna. Buruntzaldean sortutako 111 Akademiaren egitasmoak helburu hori du eta gorpuzte ahaleginetan ari da, demagun. Euskal Idazleen Elkarteak ere transmisio lanak gidatzen ditu idazleak eskoletara eramanez.

Musikak ere industria eratu bat badu, edota izan du. Baina sortze prozesu, zirkuitu eta merkaturatze bide alternatibo eta propioak landu ditu (auto-produkzioak, auto-banaketak, zirkuitu propioa), bereziki rock musikaren eremuan,

eta kontra-kulturaren esparruan antolatu den azpiegitura sistemari esker. Teknologia berrien ustiaketak ekarri dien produkzio-modu erraz eta merkeak ere lagundu du. Giro alternatibo horretan publiko berezitua dago eta kontsumo zuzenak egin du bidea, bitartekaririk gabekoak. Ez da diru-laguntza publikoak jasotzen dituen eremua. Musikari profesionala ere, idazlearen antzera, ez da ziurrenik merkatu hutsetik bizi, baina idazlea baino gehiago bai, bide alternoak zuzenean kudeatzen dituelako. Ugaritasuna, aniztasuna eta kalitatea aipatzeko modukoak dira. Badira, ondo dakigunez, gurean eta kanpoan, erreferentzia diren musikari eta musika talde euskaldunak.

Herri musika azken berrogeita hamar urteotan euskal identitatea eraikiz joateko estrategikoa izan da. Hedadura eta antolakuntza beregaina izan du, eta du. Diru publikoen politketatik kanpo dagoen diziplina da sormenari, produkzioari eta zirkuituari dagokienean. Formazioa, berriz, publikoa da: musika eskolak herri gehienetan daude eta mila-k dira bertan dabiltzan ikasleak. Musika eskolek formazioan asmatzen badute ere, euskal musikaren transmisioan huts egiten dute: ez dago bertako kultura transmititzeko antolakuntza programa artikulaturik. Gainera, musika eskolak askotan ez daude herriko kultur bizitzan integratuak eta izan dezaketen potentzialitatea ez da behar bezala bideratzen. Esandakoa nagusi da musika eskoletan, kasu ereduagarriak badiren arren, Bergarakoa adibidez.

Bestalde, delako goi kultura primatzen da sortzaileei laguntza zuzenak ematerakoan, eta ez herri kultura, kantagintza edo pop-rocka, demagun. Berdin gertatzen da gainontzeko diziplinetan, herritik letorkeen kultur sortzaileak ez du laguntzarik. Eta horrek ere atentzioa merezi du.

Dantza, ez-berbazko jarduna izanagatik, euskaltasunaren adierazgarri sinbolikoa dela ezin uka daiteke, eta, horrenbestez, euskal kulturaren elikagai. Bereizgarri du tradizioari lotua izatea eta ondare mailako jarduna izatea. Hala ere, funtzio sozial berriak topatzeko premian dago, bertsolari-

tzak egin duen moduan. Profesional eta amateur mailak ez dira bereizten, oro har. Hori ez da txarra berez, baldin eta tokian tokikoari egokitzeko gaitasuna badu, eta tokian tokiko beharrei erantzuten badie. Dantza taldeak herri gehienguan daude, eta transmisioa ematen bada ere, errito eta jai jakinen inguruan plazaratu ohi da bakarrik. Ez du bestelako zirkuiturik, ez ofizialik, ez alternatiborik. Modernizatzearen eta tradizioaren arteko talka horretan dabil, ezin lekua hartu. Modernizatzea zer den, zer beharko lukeen izan, ez da auzi makala. Dantza garaikidera hurreratu izanak agian ez dio gehiegi lagundu, ez bada helburu beste dantza edo ikuskari mota bat sortzea bera, eta hori, bere horretan, ondo baloratu beharko litzateke. Baina horrek ez du dantzaren auzia argitzen. Dantzak zer eskaini behar dio kulturari, komunitateari? Tradizioan bertan sakontzea eta tradizio hori gaurtik irakurtzea ez ote da moderno izateko modu egokiena?

Artea ere, ez-berbazko jarduna den heinean (emaitzan berehen), elikagai estetiko eta sinbolikoa izan daiteke. Hala ere, gaur egungo artean, euskara ez ei da ia existitu ere egiten, ez sortzaileen artean, ez akademian, ez kritikaren eremuan, ez erakusketa politiketan, ez katalogazio lanetan. Beharbada erakunde publikoen eskutik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, zaindu da gehien euskararen presentzia hori. Bestelakoan ez. Hala ere, aipagarri izan daiteke, zertzelada moduan besterik ez bada ere, dantzan gertatzen den bezala, artistak zein tradiziotatik edaten duen ikus litekeela artelanetan ere. Euskal kultur tradiziotik elikatzen den artea modu eta jite batekoa izango da, eta beste hizkuntza eta kultura batetik elikatutakoa beste modu batekoa. Onartu behar da oso eztabaida sotila izan daitekeela hori, baina, lan prozesuei begira, hizkuntzadun diziplina da beste edozein bezala, eta hor, adituek diote, ez dagoela, oro har, euskararen zantzurik. Merkatuari dagokionean, diziplina berezia da oso, artea. Erakunde publiko eta pribatuak dira erosle nagusiak, eta euskal kulturak izan ditzakeen merkatu parametroetatik erabat kanpo dago.

Ikus-entzunezkoak, antzerkia bera bezala, merkatuari zuzenean lotutako jarduera da, eta baita laguntza publikoen pentzukoa. Bi horietan sortzailea merkaturan dago, neurri batean edo bestean, merkatutik bizi da edo horretara jarria dago. Profesionala da zentzu horretan, profesionala den bezala balio kate osoa. Merkatuaren presioa bizi du eta horrek eragiten du kultur produktuan. Zinemagintzan ez dago ugartasunik, bakanak dira euskarazko lanak, jarraikortasunik izan ez delako hamarkadetan barna. Hizkuntza minorizatu batentzat ikus-entzunezkoen eremua estrategikoa da, berau delako transmisio tresna nagusia gaur egungo irudiaren gizartean. Profesionaltasun handia lortu da urte gutxitan eta gune neuralgikoak sortu dira, Huhezi eta Goiena kasu. Erresonantzia kutxa indartzeko eta autoirudi guregainak elikatzeke ezinbesteko sektorea da.

Bestetik kontuan hartu beharko litzateke soziolinguistikoki gazteen xede taldeari begira lehentasunezko arloa dela berau. Gazteak, hain zuzen, teknologia berrien munduan daudelako. Hauetara, *teknologia berrietara*, behingoz euskara gainontzeko hizkuntza gehienekin batera iritsi da. Eta horretan lan handia egin dute hainbat ekimen eta eragile sozialek. Horietako askok eta askok euskara erdigunean jarri dute berariaz, bokazioz eta kontzientziaz. Codesyntax enpresak, esate batera, hala jokutzen du. Bai administrazioak eta bai gizarte autoeratuak lantzen diharduten esparrua da, gaur-gaurkoz sarean ere bizi baita euskal kultura eta euskal kontsumitzailea hein handi batean. Ezin pentsa liteke, hala ere, ez sareak salbatuko duenik euskal kultura, ez eta euskaldun komunitate trinkotu bat ezean, euskal kulturak bidea birtualki egingo duenik. Ziurrenik, sare errealak, sozialek, buruz buruko eta tokian tokiko sareak lantzea eta indartzea ezinbesteko da, sare birtualean ere euskal kulturak bere lekua modu eraginkorrean ustiatu dezan.

Aipatzekoa da, era berean, euskal kultura sarean daukagunetik aukera askoz ere handiago daukatela munduan zehar bizi diren euskaldunek hemen gertatzen denaren berri izate-

ko eta parte hartzeko. Herrietako aldizkarien edukiak sarean daudenetik, adibidez, herritik gertuago sentitzen dira bost kontinenteetan bizi diren hainbat euskaldun. Zortzigarren probintzia delakoa, bada, garatuz joateko moduan gaude.

Herrietako kultur bizitza

Sare erreal horiei erreparatuz, eta zaletuen planora etorrita, herrietan kulturaren eremuan dabilzan norbanakoak eta taldeak zertan diren ikusi behar da. Horientzat, emaitza edo zabalkundea baino, prozesua bera da garrantzia hartzen duena, besteak beste merkatu parametroetatik kanpoko dinamika dutelako. Baina, aitzitik, herrietako publikoak herrikideen kultur agerkariak ondo baloratzen ditu, ausardia aitortzen die eta baita neurri bateko kalitatea ere. Hain zuzen, herrietan, erantzun onena bertako taldeen ikuskariek izaten dute, eta bereziki kalean egiten denean, eta ez antzoki edo areto barnean.

Paradoxikoki, herrietan udaletik gehienbat aretoetako programazioa lantzen da, herri gehienek baitute antzoki bat kudeatzeko eta martxan izateko. Eta sarritan azpiegitura horrek kultur programazio eta are kultur politika bat behartzen du: antzokian eskaintza etengabea egotea eta ahalik eta publiko handiena biltzea. Eta hori herriz herri eta eskualdez eskualde. Ondorioa da gain-eskaintza dagoela herrietako programazioetan eta programazioa taxutzerakoan osagarritasun irizpideak falta direla eskualde mailatik begiratuta. Alegia, artikulazio eza eta deskoordinazioa. Koordinazio bakarra udaletako kultur teknikarien harreman pertsonaletatik etortzen da, kasurik onenean, baina ez dago artikulazio sistema bat, eskaintzari dagokionean, ez lan moduetan, ez estrategietan.

Horrenbestez, kultur teknikarien lanean programazioak hartzen duen pisuaren handiak herriko taldeekin elkarlanean egin beharko lukeen sustapen, ekoizpen eta laguntza lana ez egitea dakar. Horretan taldeak kexu dira: udaletako zenbait politikarik eta teknikarik taldeen jarduna bigarren mai-

lakotzat eta ‘benetako kulturaren’ kopia kaskartzat jotzen dutela uste dute; salbuespenak salbuespen, ez dituztela kontuan hartzen, ez baloratzen, ez zaintzen. Gipuzkoako euskal kulturaren bizi-indarra ez dago eliteko sortzaileen esku soilik, baizik eta herriz herri dagoen zaletu antolatuen sarean. Herri mailako kultur politikak lehentasunez elikatu behar du sare hori. Klabea da herriko taldeen lana birbaloratzea. Pertsona eta talde horien ekarpena funtsezkoa da sarearen artikulazioan.

Bestetik, herrietan nazio mailako produktuekiko interes gutxi ikusten da, distantzia handiarekin begiratzen zaie profesionalen lanei. Transmisioaren eta hedapen sozialaren kaitek funtzionatzen ez duen seinale. Izan ere, herritarrek herrira begira bizitzeko joera dute kultur sormenari eta kontsumoari dagokionean. Herri bateko dantza taldeak apenas duen harremanik ondoko herrikoarekin, eta sarritan ez eta herriko beste kultur taldeekin ere. Askotan, kultur taldeak eta dinamikak nahiko endogamikoak dira, oso koadrila kutsukoak, itxiak. Bestalde, taldean egotea pertenezia sentimendu batekin eta herrian nor izan eta sozializatzeko modu batekin lotzen da. Egia da, modu berean, talde tradizional batzuek errelebo arazoak dituztela.

Errelebo lan horretan musika eskolek joka dezaketen rola garrantzitsua izan liteke. Hala ere, eragile askok oso modu kritikoan hitz egin digute musika eskolen balio sozialez. Kasu batzuetan musika eskolak dantza eskola ere badira, baina zoritxarrez akats berberak egiten dira dantza munduan ere: egituratze lan horrek transmisioan izan dezakeen onura apaldu egiten da musika eskolaren eta taldeen arteko lotura faltagatik. Nolanahi ere, dantzan transmisio eredu zabalduena dantza taldeek egiten dutena da, baina dantzaren transmisioa modu ofizialean egituratzea lortu dutenek musika eskolek duten gabezia bera erakutsi dute. Topatu dugu hala ere eredu on bat Elgoibarren, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskola. Hemen dantzaren irakaskuntza musikaren irakaskuntzarekin batera antolatuta dago, baina dan-

tza eskolaren kudeaketa herriko dantza taldearen esku dago. Horrek bermatzen du eskola, taldea eta herriaren arteko zubi-lana.

Erreleboari dagokionean, gazteak ez dira ikusten. Gazteak beste nonbait daude, bestelako sareetan. Horrek ez du esan nahi gazteak kulturatik urruti dabiltzanik (herri bakoitzean dagoen musika talde kopurua, kasu, ikaragarria da), baizik eta eremu 'ez ofizialean' bizi direla. Adibidez, praktika on gisa har daitekeen Tolosako Bonberenea gaztetxea dugu. Gazteek sortu eta garatutako egitasmoa da eta hamahiru urteko ibilbidea egin du honezkero. Egunero 60 bat lagun mugitzen da bertan. Bederatzi urtean 700 kontzertu antolatu dituzte. Ideietan zein praxian beregaina da eta aspalditik datorren tradizio bati heltzen dio: autoeraketari eta autogestioari. Zutabe horiekin eraikita, European erreferentzia izatera iritsi da. Balio propioak garatu dituen gunea da, egoitza etxe okupatu batean duena. Sormen, esperimentazio eta elkarbizitza gune gisa definitzen du bere burua, eta auto-antolakuntza eta euskara identitate zeinu gisa ditu erdigunean. Udaletik bertatik Tolosari gainbalioa ematen dion erakunde gisa onartzen da.

Kultur talde eta zaletuek badute nabarmentzeko moduko ezaugarri bat: herrietako jende aktiboena elebiduna dela, alegia euskalduna. Herriko indize soziolinguistikotik gora ditugu taldeetan antolatutako pertsonak. Hori hala izateak aukera handiak ematen ditu hizkuntza biziberritzeko plangintza bati begira. Hala ere, egia da, euskarazko kultura jorratuta ere, denek ez dutela euskal dimentsio hori elikatzen eta biziartzten ari direlako kontzientziarik. Horretan eragitea funtsezkoa da euskal kulturaren lanketa kontzientea, kompetentea eta koherentea izan dadin.

Bistan denez, herrietako talde eta sortzaile-zaletuen sarea lehengai garrantzitsua da transmisioak bide egin dezan, dimentsio politiko baten kontzientzia har dezan, eta, honenbestez, kontsumoa eta eskaintza-eskaera eskualde ikuspegi batetik artikulatua izan dadin.

Badira hainbat esperientzia interesgarri eta eredugarri izan daitezkeenak, hala ere. Herrien planoan, Azpeitiko Uztarria kultur taldea, adibidez. Hamar urteko epean, herriko kultur taldeen koordinakunde bat egitea lortu du, eta, horrekin, taldeak eta jendeak elkar ezagutzea, programazio koordinatu bat eskaintzea, taldeen azpiegitura eta laguntzen diagnosi bat egitea eta euskal kulturaren barneko sentimendua zabaltzea. Hori guztia herri ekimenetik egin izan da. Azken urratsa kultur mahai bat eratzea izan da, non kultur ordezkariak eta udalekoak, berdinetik berdinerara, biltzen diren. Uztarriako eragileek premisa oso esanguratsu batetik abiatu zuten prozesu hori guztia: Azpeitian euskaldun asko dago baina euskaltzale gutxi. Euskara erdigunean jarrita, estatutu politiko jasoa eman nahian ari dira. Kultur koordinakundea, bere lana beteta, orain bi urte desegin egin zen. Uztarria, orain, hilabetekaria da, baina baita webgune bat ere. Beharbada, herri zein nazio mailako webguneetan, arrakasta handienetakoa erdietsi duena. Anekdotak baino harago doa, orain, herriko kaleetan hainbat pantaila ertain jarriko dituztela kultur programazioaren berri ematen, espazio publikoa, kalea bera, paisaia, euskarazko kulturarekin janzteko, eta noski, hedapen lana egiteko.

Herri, eskualde, hiriburu

Euskarazko kultur emanaldien eskaintza, Gipuzkoan, %46koa da. Euskal Kulturaren Behatokiak, 'Kultura ohiturak, praktikak eta kontsumoa, EAEn, 2007/08' ikerketan, jasotzen duenez. Beraz, erdia eskas programatzen da euskaraz, eta hala ere Euskal Herriaren baitan eskaintza euskaldunena bertan dago. Eskaintza kopuru hori, gehienbat, lurraldeko herrietan ematen da: Azpeitian programatzen denaren hamarretik zazpi euskaraz da. Ondotik, Lasarte dator, %58 euskarazko eskaintzarekin. Zarautz, Arrasate eta Bergara dira hurrenak. Lasartek duen euskaldun kopururako asko programatzen da euskaraz, euskaldunago diren beste

herri askok baino dezente gehiago. Badu fenomeno horrek bere azalpena: Lasarte-Oriako euskalgintza aktiboa, artikulatua eta herritarrei begirakoa dela nabarmen, eta bertako euskararen inguruko mugimenduak estrategia eraginkorrak dituela abian.

Azpeitia herri euskalduna da kopurutan eta jardunean, eta hori aldeko du, baina antzeko parametro soziolinguistikotan dauden beste herri batzuetan ez da horrelako dinamika sozial eta kulturalik aurreikusten.

Ingurune oso euskalduna izateak beharrik ez ikustea ekar lezake, kontzientzia erreal bat izatea eragozten duelako. Azkoitia izan liteke azken baieztapen horren adibide. Euskaraz sortzen da, euskaraz programatzen da, euskaraz eratzen dira harremanak, bai, baina ez da euskaltzaletasun baten kontzientziaren beharra ikusten oro har, modu naturalean ematen baita dinamika euskaldun hori, eta pentsa liteke beraz ez dela normalkuntza politikarik behar. Baina ez da egia, euskararen lurralde osoan bezalaxe, eremu asko daudelako oraindik ere euskaldundu beharrekoak (lan mundua, administrazioaren mundua, merkataritza, eta beste), eta euskaradun gune izanik ere desoreka soziolinguistikoa arrisku bat delako. Hizkuntza ordezkapena azken bostehun urtean euskaldun huts izan diren eremuetara nola ari den iristen azken urte gutxian begien aurrean jarri zaigun errealitatea da. Euskararen arnagune geografikoak zaindu beharreko eremuak dira, euskara eta euskaratasunaren transmisioa modu naturalean ematen den gune bakanak direlako, eta desoreka linguistikoaren arriskua ate joka dutelako. Horren adibide dugu Altzo herria, zeina erabat euskaldun izanda, bertakoak kontzienteki indarrak bildu dituzten babes eremu bat eratzeko, herriko bizitza, herriko kudeaketa (alor guztietan) eta hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa (eskola txikiaren eta aisiaren bitartez) ez dadin gal.

Esan dugu, kontrako bidea egiten duten herriak ere badi-ra. Alegia, nagusiki erdalduna den ingurune batean dinamika euskaltzale eta kultur zale aktiboak izatea, nagusiki

euskaldunak diren beste herri batzuetan baino emaitza ho-beekin, kopurutan eta kualitatibotasunean.

Lasarte-Oria izan daiteke zaletasunaren paradigma on bat. Lasarte-Oriako euskaltzaleak Ttakun euskara elkartearen bueltan daude artikulatuta azken hamarkadetan. Kemen handiz, oinarri eta ipar argiekin, Lasarte-Oriako euskal komunitateak jakin du bere historia sozialak ezarritako muga sozialak gainditzen. Aipamen berezia merezi du lau urtez behin egiten den Euskararen Maratoiak. Euskararen 48 orduko festa horrek lortzen du lau urte irauten duen talde-motibazioa piztea eta euskararen aldeko eragileak bizitza sozialaren erdigunean kokatzea. Kultur ikuspegitik, gainera, amateurismoaren aldarria da festa. Kultur eredu horrek oso emaitza oparoak ekarri dizkio Lasarte-Oriari. Zaletasunaren artikulazio lan horrek Ttakunek abiarazi duen Abaraska izeneko egitasmoan du jarraipena. Bertara biltzen dira hiztun-komunitatearen artikulazioan periferikoak diren eragileak ere. Gertutik jarraitu beharreko eredu da hori, hiztun komunitatearen konpaktazioan aldi aurreratuago baten adibide on izan litekeen heinean. Azkenik, nabarmentzeko modukoak dira ere Landaberri ikastolaren bueltan bai antzerkian bai dantzan ari diren 600 bat zaleturen egituratze-lanak.

Bagara proiektua ere aipatu beharrekoa da. Gipuzkoako Debagoiena eskualdean garatu da kooperatibismoaren esperimentziaren muina eta bere arrakasta itzela izan da, zentzu guztietan, baina bereziki arlo ekonomikoan. Bailara Euskal Herriko aberatsenetakoa da eta, garrantzitsuena, aberastasiun hori sozialki ondoen banatutako eremua da.

Bailarako zenbait agenteren artean emandako hausnarke-ta sakon eta luzeak zerbait egin beharra zegoela agintzen zuen. Testuinguru horretan, enpresa kooperatiboak bere lurraldearekin eta herrigintzarekin beste lotura maila bat izan behar zuela ikusi zen. Hor sortu zen Bagara elkarte, kooperatiben munduko ohiko balioak berreskuratu, egungo beharretara egokitu eta Leintz bailaran gizarte eraldaketa bultzatzeko asmoa gidari.

Eredu kooperatiboa eta autogestioa medio, Debagoiengan transformazio prozesua akuilatu gura dute. Euren berbetan azalduta: «Gizartea humanizatzeko norabide integratua da Bagara, bailarako eragile kooperatibo eta sozialek bultzatua. Eskualdearen indargune bereziak baliatuz eta bailara esperimentazio gune bihurtuz, prozesu zibil zabal bat martxan jartzen du mende berrirako helburu sozialei begira». Lehen urratsean, Leintz Bailara izango da esperimentuaren gunea, 35.000 pertsonako espazio geografikoa: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz-Gatzaga. Fagor Taldea, MUko Huhezi fakultatea eta Arizmendi ikastolaren itzalak dira proiektuaren atzean. 2007 eta 2008an teorizazio fasean aritu dira Huheziko Lanki ikertegiaren gidaritzapean, eta 2009-2010ean praktikarako jauzia prestatzen ari dira. 2011n ikusiko ei dira lehen fruitu zehatzak. Kooperatiben eremua eta hezkuntza dira landu beharreko harribitxiak, baina gizarte mailako beste esparru batzuk ere lehenetsi dituzte: erretiro aktiboaren esparrua, etxebizitza, kontsumoaren humanizazioa, kultur sorkuntza, gazteen heziketa, nazioarteko elkartasuna eta hizkuntza komunitatea, besteak beste. Proiektu ugari dituzte buruan: etxebizitza alternatiboen proiektu pilotua, emakume etorkinen kooperatiba, «ongi etorkin» euskalduntzeko programa, produktu ekologikoen banaketa sarea, kooperatibagintzaz ostatu tematikoa, kafe antzokia, arte eskola, eskualdeko hezkuntza eragileen klusterra... Lan batzordeak eratuak daude, orain bakoitzaren martxak finkatuko du proiektuen abiada. Bagararen baitan euskara bitarteko eta helburu da. Bitarteko nagusi eguneroko praxian eta sakoneko helburu.

Buruntzaldea, berriz, eskualde moduan badenik ere zailantzan jartzen da. Donostialde eta Tolosaldearen erdian, izaera ezberdineko sei herrik osatzen dute balizko eskualde hori: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil. Herri bakoitzak nortasun propioa du eta Donostialde zein Tolosaldean kokatzen dira unean uneko aferaren arabera. Aipatzekoak dira, ordea, herri horietako udal sail

jakinen aldetik gorpuztu diren lankidetzaren dinamikak: bai kirol bai euskara arloan. Azpiegituren optimizazioa du oinarri lehenengoak, hizkuntza normalizazioari oinarri ematen dion sorkuntza eta artikulazio-lana bigarrenak. Kultur arloan, ordea, ez dago horrelako artikulaziorik. Dударik gabe, kultur gain-eskaintzak, errekurtsoen optimizazioak (areago krisi garaian), kultur transmisioak (hezkuntzan zein hedabideetan) eta kultur taldeek dituzten desfioek bestelako artikulazio bat eskatzen dute, baina urrutiko dago Buruntzaldea dinamizazio horretatik. Bestetik, Buruntzaldea Donostia kilometro gutxira du. Horrek abantailak eta desabantailak dakartzio kultur ikuspegitik. Hiriak erakarmen handia du, elementu asko eta indartsuak ditu bere alde. Herrietan gertuko sareak artikulatu ezean deslokalizazio kultural eta linguistikoa etor liteke. Bistan da hori ez dela eredurik jasangarria, ez behintzat gurea bezalako minorizazio prozesu batetik atera nahian gabiltzanean.

Bukatzeko, euskal kulturari komeni ez zaion kultur ereduaren paradigma izan daitekeelako, sagardoaren kulturaren bueltan gertatutakoak izango ditugu hizpide laburrean. Izan ere Buruntzaldean sagardoaren bueltan antolatu diren ekimenek ez dute lortu kultur eredu integral, beregain eta jasangarria antolatzea. Herrien arteko lehiaren erdian, gertuko sarean oinarritutako kultur eredu deszentralizatuz joan da eredu ekonomizista baten mesedetan. Aukera handiak zituen gaiak, baina ikuspegi motza gailendu da.

Eskualdeek indar handia dutenez Gipuzkoan, aukera ematen dute lurraldeari begirako ekosistema kultural orekatu bat antolatzeko. Eskualdeek badute nortasuna, baina ez da kultura eskualdearen barne artikulazioko elementu, ez administrazioetan ez gizarte zibilean. Herri bakoitza, oro har, bere kasa dabil kulturari dagokion esparruan. Udaletako kultur teknikariak, kasu. Aldiz, euskara teknikariek eskualde eta lurralde mailan biltzeko, elkar ezagutu eta baliabideak partekatu eta optimizatzeko modua landua dute. Desiragarria izango litzateke kultur teknikarien artean beste hainbeste izatea.

Lidergo hori Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen zaio el-karrizketatuen aldetik. Izan ere, denek ikusten baitute estra-tegia falta alor honetan. Izan ere, indarrean dagoen antolake-ta modua unean uneko eta gunean guneko pertsonen arabe-rakoa baita. Kultur teknikarien sarea osatzeari begira oso kontuan hartu beharko da horiek duten lan gainkarga. Az-ken hamarkadetan, aretoak zabaltzearekin batera, aretook kudeatu beharrak teknikarien funtzioa aldatzea eragin du. Aldi berean, kultur eredia irizpide ekonomikoekin lotuago dagoenetik kultur sailen estatusa hobera aldatu da udaletan. Estatusen irabaztea ona da, baina ekonomizistegia den kul-tur eredu baten barruan jokatzera behartu du. Azterketa be-rezia merezi dute kultur teknikarien profil eta funtzioek.

Herrien arteko koordinazioa eta eskualde mailako artiku-lazioa aipatu ditugula, aitatu beharrekoa da hiriburuaren egoera, gainetik bada ere. Programazio mailan, Donostia urruti dago lehen postuetatik. Heren bat baino ez da pro-gramatzen euskaraz. Datua kezkarria da, kultur azpiegi-tura handi eta egitasmo estrategiko nagusiak bertara bidera-tuak baititu administrazioak, eta hor euskarazko programa-zioaren maila ez da kultur lidergoa aitortzen zaion hiri ba-tek izan beharko lukeen adinakoa. Tradizionalki euskal kul-turaren plaza Donostian izan da, bai lurraldetik bertatik be-giratuta, eta baita Euskal Herriko talaiatik begiratuta ere. Gaur egun euskal kultura oso lausotua dago Donostian, bai sinbolikoki eta baita operatiboki ere. Azkenaldian ikusga-rritasuna galdu du. Kezkatzeko modukoa da lidergo galtze hori, hala ere potentziala badago, eta baita erakundeen arte-ko elkarlana bultzatzeko aukera ere, anbizioz jokatzeko bada.

Tabakalera proiektua, une zehatz honetan zertan den argi jakin gabe ere, euskal sorkuntzaren laborategi eta agertoki iraunkor baten egitasmoaren inguruan mamitzea kontuan hartzeko ideia da inondik ere. Zer ekarri egin diezaiokegu euskal kulturari, euskaldunari eta munduari, ez bada euska-raz sortutako kultura (bere tradizioa, sormen eta abangoar-dia osoaren baitan) garatu eta eskaintzea baino?

Nola hedatzen dugun

Etena, kolapsoa, ugaritasuna, gain-produkzioa

Kalitatean eta kantitatean aurrera egin badugu ere, egia da gaur-gaurkoz etenak badituela euskal kulturaren balio-kateak eta bide osoa ezin eginez dabilela. ‘Sortu, ekoitzi, banatu, hedatu, formatu, transmititu eta merkaturatu’, zazpi urratseko balio kate horretan urrats guztiak ez dira betetzen, edota ez daude optimizatuta. Sortu eta ekoitzi, esan dezagun, ondo egiten dela; banatu, hobetu daitekeela; hedatu, erabat hobegarria dela eta hutsune handiak dituela; transmisioa gorabehera handiekin ematen dela eta merkaturatzean arazo larriak daudela, aurreko hiru urratsek huts egiten dutelako eta horrenbestez euskal kultur produktua euskaldunen nitxoan ere ez delako ikusgarri jartzera iristen askotan.

Balio kate horrek, bere pauso guztietan, ondo olioztatuta funtzionatzen ez badu, eta bereziki zabalkundeari dagokion hiru mailetan (banatu, hedatu, transmititu) ez badu aurrera egiten, ezin ondoriozta daiteke gehiegi sortu edo produzitzen denik. Beste hitzetan esateko, ezin ondoriozta daiteke ugaritasuna gain-produkzioa denik. Kateak, errekan urak nola, oztoporik gabe aurrera egiten badu, orduan frogatu ahal izango da euskal kultura gain-produkzioaren gaitzak jota dagoen ala ez. Horretarako merkaturatzerainoko tapoiak kendu behar dira, eta produktuak kontsumitzaileen begien aurrean, nola euria, bila ibili beharrik gabe, natural agertu.

Merkatuaz ari gara. Erabileraz eta kontsumoaz. Zehatzago, erabileraz eta kontsumo eskasiaz. Euskaldun kopurua ez da ezkontzen kultur kontsumo kopuruarekin, eta, era berean, euskaldunen kopuruak gora egiteak ez dakar berarekin beste horrenbesteko hazkunderik euskararen erabilerari dagokionez.

Etena erreala da. Etena hizkuntzaren beraren baldintza sozialek eragiten dute. Kontrara, euskaraz kontsumitzearena da eragin beharrekoa. Merkatuak euskaraz ez den beste

edozer kontsumitzera garamatza. Horregatik beharrezko da merkaturatze politika zehatz eta indartsu bat. Diru-laguntzen politikan, eskaeren ugaritasunak administrazio publikoari eragiten dion ezin erabakia eta ezin iritsia ere eten edo kolapso moduan bizi da: lehentasunak non jarri? Nori zenbat eman? Banaka datozenei ala sektore antolatuetan datozenei eman lehentasuna? Benetako kolapso bat baino, kultur politika argi baten falta izan daiteke egoera hori: administrazioaren eta eragile sozialen arteko bisio eta politika konpartitu ezak dakarren arazoa, hain zuzen ere.

Ekonomikoki garai hobeak izan direnean asmatu ez bada, zer gertatuko da krisi garaiotan? Administrazioan daudenen bisio eta politikak eta gizarte zibil autoeratuan lanean ari direnenak orain arte ez badira euskal kulturak merezi bezain ondo uztartu, zer gertatuko da administrazioetako gidaritza politikoa beste alderdi batzuen esku geratzen bada? Neurriko gogoeta merezi du, iragan hurbilak egiaztatzen baitigu instituzioen kolore politikoak baduela garrantzia.

Badaezpada ere, komeni zaio euskal kulturari galdera horiei erantzuten hastea. Izan ere, krisiak krisi eta politikak politika, hipotesi erreala da diru-laguntzak murriztea, eta horrek bere neurrian badu eragina orain arte egindakoari eusteko eta ereiten jarraitzeko. Erantzukizuna, euskal kultura iraunaraztearena gaurdaino, historian zehar beti egon izan den leku berean dago gaur egun ere: euskaldunongan. Lehenago, baina, gipuzkoar askok erdaraz bizi nahi izanda ere, ezin zuten, ez zekitelako erdararik. Gaur egun, ordea, erdaraz bizi ahal izanda, zenbat gara euskaraz bizitzeko hautua egingo dugun gipuzkoarrak? Garai bateko gehienen ezinengatik eta gutxien izateko gogoarengatik heldu gara gaurdaino. Hori ikasi dugu. Aurrerantzean, ordea, erdararik erabili ezin duen euskaldunik izango ez denean, aukera egin eta euskaldun izaten jarraitzeko gogo horri zenbatek helduko diogu? Euskal kulturgintzan esplikazio guztien jatorria ez dago kapital ekonomikoan. Ikusi dugunez, euskararen herrian bada kapital soziala eta sinbolikoa, egiazki, euskal

kulturgintzaren bilakaeran gako nagusietako bat izan dena. Halere, nekez uka daiteke alderdi ekonomikoa baldintza erabakigarri bat denik.

Ez dira galdera abstraktuak: Gipuzkoako herririk gehien-tsuenetan euskal kulturari bideak zabaltzeko eraturtutako dauzkagun azpiegiturei, harreman-sareei, zerbitzuei nola eutsiko diegu krisi garai luzea badator, euskarari eta euskal kulturari diruak murriztenagotzen bazaizkio honengatik edo hartatik? Kapital ekonomikoari begirakoak gainera badu beste alderdi bat ere, gizarte aldaketan garaiotan bere garrantzia duena. 40 urte ez dira oraindik euskararen alde edozer egiteagatik dirua kobratzea oso-oso txarto ikusita zegoeneko garai hura. Gaur egun, eta paradoxikoki Gipuzkoan bereziki, beste muturrera ez ote goaz, deblauki? Geroa idatzi gabe dago, ondo dakigunez. Denon artean eraikiko dugu, bakoi-tzak —norbanako, gizatalde, instituzio...— hartu nahi duen erantzukizunetik. Eltzea sutan jartzeko garaia datorkigu, berriro.

Euskarazko kultura: haurrentzako kultura?

Dena den, aipatu beharrekoa da, badela kolapso zantzurik ez duen euskarazko kultur eremu oso adierazgarri bat: umei zuzendutako kultur produktuena. Gogoan hartzekoa da umeentzako kultur produktuen ugaritasuna, batez beste-ko kalitatea, kontsumo mailan duen erantzuna lantzen diren diziplina guztietan. Hori berezko ezaugarri du euskal kulturak. Eta, bistan denez, gizartearen egoera soziolinguistikokoaren isla da. Adin horretan dira umeak euskaldunen. Adin-tarte horretan dira euskal produktuen kontsumitzaile aktiboak. Kontsumitzaile izate hori transmisio egituratu bat izatetik dator: hezkuntzaren bitartez, aisiaren bitartez, hedabideen bitartez (EITBren politika: umeentzako euskarazko programazioa nagusi) eta gurasoen bitartez (transmisio lana —kontzientziaz edo gabe— etxean egitekotan adin horretan egiten da, hein handi batean).

Fenomeno horrek irakurketa bikoitza izan dezake: batetik, onuragarria dela sormen, produkzio, hedapen, transmisio eta kontsumo sistema hori artikulatzea edota gutxienez bisibilizatzea eta umeenganatzea lortu izana. Horko klabeak irakurtzea komenigarri da beste eremu batzuetan aplikatu ahal izateko. Kontuan hartu behar da estreinako urratsa, lehen eskailera maila ongi betea eta ongi errotua badago jarraipen bat erdiesteko bidearen oinarritzko zati bat egina dagoela. Eta eskaileraren bigarren mailan dagoela euskal kulturaren desafioetako bat: umeengandik gazteengana urratsa etenik gabe eman dadila; ez dadila hutsunerik izan ez sormenean, ez produkzioan, ez transmisioan, ez hedapenean, ez kontsumoan, ez zirkuituan, ez gozagarritasunean. Jakitun gara, hala ere, gazteak heldua imitatzen duela, eta, hori hala izanik, ezinbesteko da helduen munduan eragitea.

Bigarren irakurketari dagokionez, umeentzako kultur produkzio horretan euskara da hegemoniko, eta horretara dago jarria produkzioa, alegia euskaraz izatera, eta baita neurri handi batean umei zuzendua izatera. Horregatik, askotan 'euskal kuota', demagun programazioarena edo produkzioarena, umeentzako produktuek bereganatzen dute, eta horrenbestez 'gaztelera' kuota' helduentzako kulturak bereganatzen du. Kulturaren behatokiko kontsumo datuek ere beste horrenbeste adierazten dute: euskal kultura gehienbat asteburuetan, goizez eta berez berariaz kulturarako guneak ez diren lekuetan programatzen da. Alegia, umeentzako programazioa dela nagusi euskararen esparruan. Aldiz, asteburuetan, gauez, eta kulturarako diren guneetan gaztelera programatzen da nagusiki Gipuzkoan. Esan dezagun gazte eta helduentzako kultura normalizatua izan daitekeen hori erdarazkoa dela, gehienbat. Beraz, umeentzako produkzioan lortu den sistema nahiko osotu hori gainontzeko adin eta diziplinatan lortzen ez den heinean, euskal kultura nagusiki umeentzako kultura izango da, nolabait esatearren 'infantila', nolabait definitze aldera bigarren mailako, k txikiko kultura. Hor nabarmentzen da euskararen erabileraren in-

guruko perbertsioaren adibide bat. Eta bigarren mailan jokatze horrek kultura osoa ere kutsatzen du eta pertzepzio okerrak sorrarazten ditu. Horrek eta horrenbestez ez du esan nahi euskal kulturarekin gozatzeko aukerarik ez daukagunik ume ez garen guztiok. Gure txikitasun kuantitati-boan, badakigu handi ere bagarela.

Ikusezina ote da euskal kultura?

Euskarazko kultur produktuak bigarren mailakoak direla, ez direla nahikoa duin pentsatzen dute askok. Merkatuan indarrean dauden marketin estrategietatik kanpo daudenez, pentsatzen da ez direla produktu onak. Pertzepzio horren atzean, aurrekoaz gainera, txikitasunaren estigmatizazioa dago, inguruko kultura handi eta arranditsuen ikaragarriko presioak eragiten duena. Hizkuntza eta kultura txiki batean, are minorizatu batean, ezin dela kultur produktu bikain eta handirik sortu pentsatzen da. Hori da ustea, oso pentsamendu nagusikeriazkoa bada ere.

Kontraesana bada ere, badago euskaldunen artean beste pertzepzio bat ere: zailak edo jasoak direlako pertzepzioa sortzen baita. Kontsumitzaile potentzialen hizkuntza gaitasuna muga izan liteke hainbat produktu kontsumitzerakoan, baina arazoa produktuan ikusten da, ez norberaren hizkuntz gaitasunean. Arazoa, jakina, hartzailak berak du bere baitan, ez duelako nahikoa gaitasun linguistikoko kultura kontsumitzeko. Pertzepzio oker horrek kultur sistema osoari eragiten dio, eta beraz arazoa denera iristen da. Aurreiritzi horiek guztiek merkatuan eragin zuzena dute, edo, hobeto esanda, merkatu eskasian edo merkatu faltan. Oinarri-oinarriko baldintza batek huts egiten baitu: kultur produktuak ez dira ezagutzen, are askotan ez daude ikusgarri ere. Indarrak jarri behar dira jendeari erakusten zer egiten den euskaraz; jakinarazi egin behar zaio egiten den hori duina dela, ez dela bigarren mailako, eta gainera ikusarazi bere gustuko produktuak egon badirela.

Transmisioa eta merkatua: txanponaren bi aldeak

Kultur produktuen merkatua ekonomia alorreko jarduera bat da, bai, baina ez hori bakarrik. Etekin ekonomikoez gain, etekin sozialak eta pertsonalak ere ematen ditu kulturaren kontsumoak: herrigintza bultzatzen du, hiztun komunitate bateko kide sentiarazten du, kulturaren beraren garapen propiorako elikagai sinbolikoa banatzen du, hizkuntza beraren gurgila elikatzen du eta pertsona burujabe eta osasuntsuak egiten ditu.

Kulturaren transmisioa eta merkatua lotuta doaz halabeharrez, batak ezin du bestea gabe funtzionatu eta alderantziz: kultur produktuak merkaturatu eta merkaturan lehiatuko badira, transmisio eta hedapen sistema bat beharko dute izan atzetik. Modu berean, merkaturan bistaritzen eta lehiatzen den kultura, une horretan bertan transmititzen ari den kultura bat da. Bi eremuak banatu litezke gutxi-asko bakoitzean protagonismoa hartzen duten agenteen arabera. Horrela merkatua sortzaile edota produktore profesionalen eremua da, batik bat. Transmisioarena, berriz, zaleen eremua da. Zale kontzeptua bi zentzutan ulertu behar da: kultur praktikatzailea amateur gisa, eta horrekin batera merkatuko produktuen kontsumitzaile gisa. Hala ere, sortzaile amateurrek ere joka dezakete merkaturan, eta aldi berean sortzaile profesionalek ere transmisioan zeregin garrantzitsua dute: sortzaile huts izatetik haratago, eragile izatearena. Egiten ari direnaren kontzientzia izatea, alegia.

Transmisioaren eta merkatuaren zirkuituak, beraz, elkar elikatzen dute. Transmisioak zaleak sortzen ditu, kultura bateko kideak, eta baita sortze bidean jar daitekeen jendea ere. Eta horiek denak kulturaren kontsumitzaile aktibo bihurtu daitezke.

Merkatua galbahe ere bada. Lehia du joko arau eta bertan erabakitzen da zein produktuk egingo duen aurrera edo zeinek ez. Merkatuaren eta bereziki masa merkatuaren galbahea igarotzeak hala ere ez du esan nahi kalitatezko produktua denik, merkatu globala oro har oso banalizatua baitago.

Bestalde, ona edo kalitatezkoa izate hutsak ez du bermatzen zabaldu eta kontsumituko denik. Gaur egungo merkatuak saltzea eskatzen du.

Hala ere, merkatuaren beharrezkotasuna ukatu gabe, komenigarri da merkatuaren perbertsioaz bi hitz egitea. Kulturaren esparruan, merkatuak —lehia elementu garrantzitsu legez hartze horrek— kultura ez normalizatu bati kaltea ere egin liezaioke, edozein kulturari egin liezaiokeena baino handiagoa. Merkatuan dena galtzekoa izan daiteke, euskal kultura bera merkatu parametroetatik kanpo dagoelako definitzioz. Alegia, ez dela bere horretan ekonomikoki errentagarri. Datu objektibo bat da, gaur eta hemen, euskarazko kultura ez dela bere lepotik bizi. Arlo gehienetan da defizitario ekonomikoki. Industriak eta eragileek diru-laguntzak jasotzen dituzte, eta horrezaz gain, euskal kultura hutsa ez diren beste jardunbide batzuetatik finantzatzen da euskarazko kultura: dela testu-liburugintzatik, dela bestelako zerbitzu teknologiko edo edukiak emaketik, dela gazteleraz argitaratzeagatik, dela elastikoak eta beste saltzetik, dela etekinik gabeko, are inbertsioa ez berreskuratzeko, pentsamendutik egiten direla, izateko gogotik... Normaldu eta homologatu beharra inposa dezake merkatuak eta horrek galbidea ekar lezake helmugaren eta helburuaren perspektiba galtzen bada: ez dirua egitea, edo saltzea lehenetsi, baizik eta sortzea, zabaltzea, biziberritzea, eta kultur sistema elikatzea da xede.

Iparra galtzen ez badugu, denean gaude irabazteko, baita merkatuan ere, elikagai sinbolikoa sortu eta banatzeko gai izango bagara bederen. Gainera, kultur produktu guztiak ezin dira galbahe beretik pasatu. Esan nahi baita, etekin ekonomikorik eman ez edota hedapen zabala ez izanagatik, badirela behar-beharrezko diren produktuak ere: dela euskal kulturaren bizi iraupenaren baitan izan dezaketen garrantziagatik, dela etorkizuneko kultur kontsumoan eragiteko urrats estrategiko direlako, dela ohitura sortzeko edota publikoa hezteko. Ezin da merkatua guztiaren neurgailu izan. Edonola dela, merkatuan lehiatzeko lehen baldintza ir-

teera puntura iristea da, eta ez hori bakarrik: ikusia izateko moduan abiatu behar da lasterketa. Lasterketaren abiapuntura iritsi ere egin gabe, ezin esan dezakegu kultura bat, produktu bat, hizkuntza bat ez dela saltzen, edota kultura batek merkatuak ezin irentsizko produkzioa duela.

Gaur egun euskal kultur produktuen arazo nagusia merkatuan dago. Alegia, produkzioaren eta kontsumoaren artean etena dago. Paradoxa argia da: inoizko euskaldun kopururik handiena eta jantziarena dagoenean, ez dago kontsumitzaile nahikorik, edota euskaldun kopuruak ekarri beharko lukeen adinako kontsumorik. Eten horren arrazoiak bi mailatan aztertu behar dira:

- Gizarte mailan: euskal hiztunen komunitatea izan bada, baina ez dago nahikoa trinkotua. Gaur egungo gizartearen ezaugarriak dispertsioa, aniztasuna eta ugaritasuna izanik, komunitatea eta komunitate horrekiko pertenezia sentimendua lausotu egin ditu: euskal komunitatearen desintegrazio bat gertatu da azken hamarkadetan, eta horrek eragin du ez kontsumitzea. Kontsumo ohiturak eta bideak ere aldatu egin dira, gainera.
- Kultur estrategien mailan: euskarazko produkzioa ikusezina da, produkzio horrek ez duelako nahiko aukera erakuslehoan jartzeko. Garrantzitsua baita jartzea, baina baita ere nola: ze mezurekin, ze irudirekin, ze balio erantsirekin, ze bereizgarrirekin.

Gure merkatua hiru azpi-azoketan bana liteke: euskal nitxoa, non euskaldun kultur zalea den bezero (150.000-200.000 lagun); Euskal Herrian bizi diren gazteleradun eta frantsesdun kultura zaleen merkatua; eta merkatu globalizatua, definizioz masa merkatua dena, eta honenbestez orokorra, berdintzailea eta publikoaren bereizketarik egiten ez duena.

Euskal nitxoaren ezaugarriak tankera bereko beste merkatuen berdinak dira: zatikatua, espezializatua, kontsumitzaile jakin eta berezi bati zuzendua dagoena: euskaldunari. Euskal hiztunen merkatu horren baitan, euskal kultur produktuen merkatua ere nitxo merkatu bat da: hau da, pro-

duktu berezitu eta espezializatuak merkaturatzen dituen, ez berezitu gabeko masa publiko bati zuzentzen zaiona, eta helburu euskaldun kultur zalea duena. Beraz, espezializazio bikoitza du ezaugarri euskal kulturaren merkatuak.

Euskal nitxoa, nitxo merkatu guztiak legez, ez da inondik ere masa merkatu bat. Horrezaz gainera, masa merkatu globalizatuaren eta hizkuntza eta kultura handien merkatuen barnean, edo periferian, kokatzen da, eta horrenbestez ez da merkatu normalizatu bat. Baina bere txikian ere, kultura txiki bat mantentzeko gai izan daiteke, eta baita kultura hori hitzun komunitatearentzat elikagai bizi izan dadin ere. Euskal kultura mundura zabaldu behar da, bai, baina horren aurretik euskal kulturaren mundua zabaldu behar da, kultura bera eta bere eremu naturaletan. Hala ere, zabaldu daitekeen eta zabaldu beharko den merkatu bat bada, horretarako propio hainbat politika diseinatu eta adostu beharko dira.

Euskal produktuen banaketa estrategikoa da merkatuak funtzionatuko badu. Salmenta puntu eta azoketara iritsi beharra du. Sarritan, banaketa lan hori gainkarga ekonomiko handia da industria handitik kanpo dauden erakunde txikiago eta are alternatiboentzat. Ezin jasan ditzakete kostu horiek. Eta horrek, dagoeneko, ekarri du hainbat erakunde eta eragilek bere banaketa-sistema propioa sortzearena, eta zuzeneko salmenta egitearena, inbertsio hori eginda ere merkeago ateratzen baitzaio banaketa sistema nagusia erabiltzea baino. Benetako arazoak sortzen ditu produktuen banaketak, eta mereziko luke azterketa eta doiketa bat.

Bestelako banaketa liburutegi eta eskoletara egin beharrekoa da. Bat banaketa bermatzea da, eta bestea banaketa hori produktuak merkaturatzen diren denbora berean egitea. Nork hartu behar duen bere gain, nola egin behar den: liburutegiek euskarazko liburu erosien kuota bat bete behar ote duten, administrazioak banaketa modu azkar bat (produktu berriak egon daitezela lehenbailehen liburutegietan eta eskoletan) antolatzeke lana hartu behar duen... Konponbidea behar duen afera da.

Euskal produktuen erakargarritasuna ez da etorriko kultura handietan egiten den produkzioa salgarri baina ez-kalitatezkoa imitatzetik. Produktu berezituak behar dira. Euskarazko produktuek ez dute zertan espainolezkoen mimetikoak izan, aitzitik, bereizten badira hobe. Nitxo merkatuetako produktuen bereizgarri izaten da nolakotasun propio bat izatea, dela kalitatea, dela ingurugiroaren zaintza, dela eskusibitatea (beti kontzientzia mota bati lotua). Gurean bereizgarri berezkoa euskara da, eta euskaraz sortua izateari kalitatezko eta bereizgarritzko adjektiboak jarri behar zaizkio. Demagun, ‘euskaraz sortua’ etiketa bat, edota etiketa horren ideia. Erakargarritasun hori eratu eta saltzeko unean, bi ezaugarri garrantzitsu izan daitezke:

- Euskaraz sortua izateak emango dio benetakotasuna, interesa, erakargarritasuna; ez beste hizkuntza batean euskararen inguruan edota euskal gisara moztutako produktuak egiteak.
- Euskaltasun identitatea ere kontzeptu salgarria da, produktuaren sustraitasuna, nortasuna, diferentzia markatzen duelako.

Garrantzitsua da produktuak euskaraz sortzeaz gain, horiek euskaraz soilik komertzializatzea ere kontuan izatea, lehen urrats batean bederen, merkatuan bide bat egiteko aukera izan dezaten. Interesa duena euskaratik igaro dadila, itzulpena jo aurretik. Edukiak sortu behar dira euskarri berrietarako, pantailetarako bereziki. Datuek diote gazteen gan teknologia berrien, eta bereziki interneten erabilera, ehuneko ehuneko dela. Teknologiak esango du zein den euskarria, zein den kontsumo eredu, baina edukiak guk sortu behar ditugu.

Kultur produktuen zabalpena lortzea beharrezko da

Zabalpen politika bat diseinatzea beharrezko da. Egiteko horretan instituzioek eta gizarte eragileek elkarrekin jardun beharko dute, behar errealetatik abiatzeko. Balio-katean ad-

ministrazioaren interbentzioa, gutxi-asko, merkaturatu aurreko urrats guztietan egon da, baina hortxe gelditu da. Garaia da merkatura begiratu eta merkaturatzea optimizatzeko neurriak hartzeko. Izan ere, balio-katean inbertitzen den beste hainbeste (demagun) inbertitu beharko da merkaturatzean ere.

Ikusgarritasuna ezinbesteko da, baina landu eta bilatu egin behar da. Gaur egun ona izatea ez da nahikoa eresia edo kontsumitua izateko: saldu egin behar da. Jendeari erakutsi egin behar zaio zer egiten den euskaraz; jakinarazi egiten den hori duina dela, ez dela bigarren mailako, eta gainera ikusarazi bere gustuko produktuak badirela. Merkaturaren eta kontsumitzaileen gaineko ikerketa egitea beharrezko da. Euskal kontsumitzaileen, alegia elebidunaren, profila ezagutzea, eta bezero horri buruzko marketin programak sustatzea.

Merkatuari arreta berezia jarri dion egitasmo bat *Gaztezulo* aldizkaria da. Hain zuzen, orain hamar urte sortu zen aldizkari horrek inkesta bat izan zuen abiapuntu. Donostiako *Hirutxulo* aldizkariaren bezeroa zer nolakoa zen ikusteko galdeketak datu argigarriak eman zituen: irakurle asko eta asko gazteak ziren eta kultur kontsumitzaile. Horrek ekarri zuen gazteentzako aldizkaria sortzea. *Gaztezulo* aldizkariak gerora ohitura izan du bezeroa eta irakurle potentziala testatzekoa, eta, gainera, inkesta saioak erabili izan ditu, galdeketa egitearekin batera, harpidetzak egiteko. Horrekin harpide kopurua emendatuz joan da, eta baita produktuari aldiro-aldi berritasunak sartuz ere.

Banaketa ere berariaz landu duen eremua izan du aldizkari horrek. Harpidetzak eta kioskoa lantzeaz gain, Euskal Herriko eskolen sarea baliatu dute aldizkaria banatzeko. Gazteak non aldizkaria han, izan dute goiburu. Eta marketin neurriei dagokienez, ia urtero-urtero kanpaina berezituak egin izan dituzte, berezituak eta bereziak gainera.

Gazteen eremua estrategikoa da euskal kulturaren, ahulguene nabarmen bat delako, eta *Gaztezulok* horretan asmatu

izan du, produktua zabaltzeaz eta finkatzeaz gainera, gazte euskaldun erreferentzialak sortzeko eta bistartzeko hedabidea izan delako.

Kultur produktuen banaketa hobetzea eta bermatzea ere ezinbesteko da. Produktuak, produktu guztiak, leku guztietara (liburu denda, salmenta puntu, liburutegi, azoka, eskola) iristeko modu dinamikoa behar da. Eta gainera, banaketa lan horren kostuak ezin du gainkarga ekonomiko jasanezina izan industria 'handiaz' kanpoko sortzaile eta ekoizleentzat, egun gertatzen den moduan.

Hedapenerako eta kontsumorako *zirkuituak zabaldu eta dibertsifikatzea* ere beharrezko da: zirkuitu alternatiboak (sare ofizialetik kanpokoak), zirkuitu espezifikoak adinaren arabekoak, joera eta gustuen neurrikoak, herri-auzoetan euskal kulturaren azokak berrindartu...

Handiaren, kantitatearen, serialtasunaren edota errepikapenaren aldeko mezu globalari aurre egiteko *mezu berriak sortu behar dira*: txikiaren alde, euskararen alde, kalitatearen alde, lokalaren alde, identitatearen alde. Halako kategoria kate bat osatu, produktuaren identifikatzaile izango direnak.

Kultur produkzioa kultur kontsumitzaile eta zaleen eremu fisikora hurbiltzea giltzarri da. Merkatu sistema tradizionaletik haratago, tokian tokiko gozamen taldeak bultzatzea interesgarria da. Dagoeneko badira: irakurle taldeak, antzerkizale taldeak... Kontsumo eta transmisio talde dira. Eta zaletasunetik eta gozamenetik abiatu badira ere, ona litzateke euren taldetasun txikian, euren lokaltasunean, kultura oso baten parte aktibo direla senti dezaten. Horretan zaletuek adina garrantzi dute sortzaileek eurek ere. Aztertzeko moduko eredia izan daiteke kultur sare deszentralizatuen antolaketa.

Merkatuan eragiteko transmisioaren eremuan jokatu beharra dago. Hemen eta munduan, kultura baten transmisiorako tresnak zeintzuk diren aspaldi ezagutzen da: hedabideak, hezkuntza arautua, hezkuntza ez arautua edo aisialdia eta espazio publikoa. Hizkuntza normalizatueta horiek normaltasunez ustiatzen dira, hobeto edo okerrago. Baina us-

tiaketa onena izan gabe ere, merkatua alde duten kultura handietan, transmisio tresna horietan huts egiteak ez die kalte ikaragarririk ekartzen. Badute sistema bat, batera edo bestera bere burua konpentsatzen dakiena. Baina gure kultur sisteman, oreka hauskor horretan, transmisio tresna horiek ondo ez baliatzeak berebiziko kaltea eragiten du. Euskaldunak gara, euskaradunak, bai, baina kulturaz ere euskaldunak ba al gara? Galdera horri erantzun behar diote lau eremu horiek. Behar-beharrezko da hizkuntza politiketan kultur dimentsioa integratzea.

Hedabideak

Hedabideak legitimazio tresnak dira gure gizartean, eta horien indarra ereduak eta balioak zabaltzerakoan izugarria da. Horiei dagokionez, lau eragin eremu bereizten ditugu:

- Euskalgintzako euskarazko hedabideak: helburu estrategiko izan behar dute euskarazko kultur produkzioa maitatu eta erakusteko. Kultur joerak detektatzeko, kontsumo joerak markatzeko, euskarazko produktuak balioan jartzeko, haien duintasuna agerian uzteko. Ez da nahikoa informatzea, ezta euskaraz informatzea ere, kultura elikagai bihurtzeko betebeharra dute, eta horretarako eragile izan behar dute.
- Hedabide publiko euskaldunak: hedabide publikoak kultur politiken baitako tresna nagusietako bat izan behar lukete. Zerbitzu publiko diren heinean, euskal kultura zabaltzea, duintzea eta baliotzea izan behar lukete helburutzat. Aurreko puntuan esan duguna ere hemen aplikatu behar da: euskaraz informatzeaz haratago, ekosistema bat elikatu eta birsortzeko bokazioa izan behar dute. Kultur programa espezifikoak eginez (egiten dira), baina baita informatiboetan euskarazko kulturaren presentzia areagotuz ere. Hori programazioaren baitan. Hortik kanpo, kultur eragile sozialei doaneko publizitate tarteak eskaini behar dizkie euren produktuak iraga-

rri ahal ditzaten. Zalantzarik gabe, elkarrizketatu guztiek baloratu dute EITB bere sortze helburutik urruti dagoela. Gipuzkoako Foru Aldundiak, diagnosi horrekin bat etorrita, Gipuzkoa Kultura TB izeneko proiektua abiarazi du zenbait herritako telebistarekin (tokiko tv) elkarlanean. Eredugarritzat jotzen den ekimen hori hasita dago jada emaitza onak eskaintzen.

- Erdalgintzako hedabideak, publiko zein pribatuak: gurean nagusi dira kopurutan eta eragin indarrean erdarazko hedabideak, eta historikoki horietako askotan euskara eta euskal kultura ez dute aintzat ere hartu. Euskal kultura badenik ere ezin du jakin hedabide horien kontsumitzaile euskal herritarrak. Euskarazko kulturari leku handiago eskaini beharko liokete. Kuotarik aplikatu al liteke kultur politika baten eskutik? Galdera hor dago.
- Azken hogeita hamar urteetako historiak erakutsi digu hedabide elebidunen porrot erabatekoa, beti gaztelera edo frantsesa gailendu baita. Aipatu izan duguna, lehenago ere: euskara erdigunean ez jartzeak euskararen galera dakar. Alor honetan ere bai. Hala ere, badira gurean euskara ere sartzen duten erdal hedabideak, baina borondate onez edo txarrez izan, euskararen erabilera maltzurra egunero ikusten dugu: normalean euskarazko kultur produktuen informazioa euskaraz emanez zuritzen dute halako euskararen balizko kuota bat. Horrekin, baina, gainontzeko informazio garrantzitsuak erdaraz emanez, euskara bera bigarren mailako agertzen da hedabide horren geografia ideologikoan. Eta ez hori bakarrik, euskal kultura bera agertzen da bigarren kutsuko gisa, eta horrenbestez baita sortzaile bera ere. Hedabide horiek ere gogoeta egiteko obligazioa badute.
- Sareko hedabideei ere premisa berberak aplikatu behar zaizkie. Bestelakoan, sarean euskal kulturaren ikusgarritasuna lortze aldera, plataforma bateratu handi erreferentzial bat egitea izan daiteke bidea, edo barne sare bat eraikitzea. Aztertu beharreko kontua da.

Hezkuntza arautua eta ez-arautua

Hezkuntza dugu transmisio gune nagusia. Baina zer transmititzen du? Hamasei urteko gazte batek zer daki euskal kulturaz? Zenbat gozatu du euskal kulturaren bitartez? Zer jaso du eskolan? Horren aurreko galdera agian honako hau da: irakasleek zer dakite euskal kulturaz? Eta gurasoek, edo etxeok? Euskal kulturaren transmisioa bermatu beharko luke eskolak. Curriculumean bertan euskal kultura egoki txertatzea beharrezko da. Gazteak jantzi, kultura baten jabe izan, kultur komunitate bateko kide sentitu eta sormenaren bideetan jartzea ahalbidetuko luke horrek, eta horrekin zale eta kontsumitzaileak sortzea.

Helburu horiek erdietsiz joateko bidean, gogora ekartzekoa da Hezkuntza saileko IRALE programaren baitan hainbat urtez arrakasta handiz eman izan diren R600 ikastaroak, euskal kultura propio lantzeko asmoz eratuak, ia bertan behera utzi dituela Lakuara iritsi berria den PSOE-PP tandemak. Euskararen egungo muga sozialak zabaltzea desiragarritzat jotzen dugu denok; baina, horretarako, jakina, egun beste aldean dagoenak gugana hurbiltzeko pauso bat ere eman beharko du. Tamalez, badirudi zorioneko kontzertazioa desio izaten jarraitu beharko duela.

Etxea transmisio gune izan da historikoki, baina gizarte eredu aldaketek transmisioa zentzu zabalenean eskolaren esku utzi dute eta gurasoak arduragabetu ditu. Interesgarria litzateke eskolaren markoan gurasoak edo etxeok ere kultur transmisio horretan hartzaile eta igorle izatea. Hezkuntza komunitatea osatzen jarraitzea eta kultur transmisioa ardatz bihurtzea ezinbestekoa da.

Aisialdia ere hor dugu: aisia talde, eskolaz kanpoko ekimen eta beste. Hor eragitea ere planteatzeko modukoa izan liteke, ikastearen derrigortasunarekin baino gozamenarekin eta sormenarekin lotzeko gune egokiak direlako. Bidenabar, gogora ekartzekoa da aisialdiak aukera aparta eskaintzen duela umezarotik gaztarorako jauzia giro euskaltzalean egiteko.

Euskal kulturaren eskolak? Esate baterako, Bagara proiektuaren baitan, gazteen aisialdiaren eremuaz harago, heziketa soziokulturalean sakontzeko beharra ikusi da. Jarraipena merezi duen gaia da.

Gune sinboliko publikoen indartzea

Kalea, paisaia, espazio birtualak, sozializazio guneak eta jaiak euskararen eta euskal kulturaren izaera identitarioarekin lotzeak berebiziko garrantzia du, hizkuntzaz haragoko hedapen gaitasuna baitu. Seguran Iparra-Hegoa egitasmoak euskararen lurraldea jarri du erdigunean eta hori baliatu mugaz gaindiko jendeen topagune bat osatzeko urtero. Kultur ekitaldiak oinarri ditu, eta ikusgarri jartzen duena, maila sinbolikoan, muga geografikoen gainetik euskararen mundu bat dela da. Bere horretan interesgarria da eta gainera kalea du gune nagusi. Zarauzko Euskal Jaiak ere kalea du gune nagusi. Segurakoak hamar urteko historia du, Zarauzkoa mende hasieratik dator. Eraldatuz eta moldatuz, baina urte hauetan guztietan lortu du euskararen zentraltasuna gordetzea eta euskaltasunaren sinbolo gisa irautea, nahiz eta helburu turistikoak kasik hasieratik izan dituen. Gaur egun aipagarri da, Udalak antolatzen duenaz gainera, hainbat herritarrek urtero herri antzerkia egiten dutela. Bertan ehun bat herritar biltzen da antzeztera, eta ikustera berri-ehunka. Alde horretatik herriak eta herriarentzat egindako jai bat da, belaunaldi gazteen integrazio eta sozializazio bide euskaldun bat eskaintzen duena. Bi esperientziak dira ekimen identitarioak zentzu horretan.

Politikarien eta gizarte pertsonaia erreferentzialen atxikimendu publikoa ere beharrezko da. Horrek ere balio sinboliko handia du, hori ere legitimazio eta normalizazio urratsa delako. Ez da nahikoa diskurtsoan integratzea euskararen aldeko aldarria, ezinbestekoa da eredu ona izatea. Alegia, agintari zein hiritar gisa, egon behar den eta egon nahi den lekuetan egoten jakitea.

Sortzaileak eta eragileak transmisore

Sortzaileek eta eragileek euskal kulturarekiko pertenezia lantzea komeni da, sortzaile huts izatetik eragile izatera pasa daitezten. Eragin eremua merkatuaren esparrutik kanpora, hurbileko espazioetara ere irits dadin desiragarria da. Sortzailea kulturagilea izatea, alegia.

Bestalde, politika eta jarduera iraunkorrak behar dira, jarraikortasuna izango dutenak, *publikoa sortu, hezi eta kontsumo ohiturak sortzeko*. Ekimen puntualek ez dute lur hartzen, galdu egiten dira. Gazte eta umeak antzokietara eramatea, demagun, interesgarria izan daiteke, baina emaitzak epe luzean emango ditu. Emaitzak berehalakoan lortu behar ez du mesederik egiten. Kultur fidelizazioak eta kontsumo ohiturek hori eskatzen dute.

Azken aldian, euskaraz jakinagatik eta are elkarren artean euskaraz bizi izanagatik ere, badira ingelesari heltzen dioten gipuzkoarrak beren sormena bideratzeko. Hautu hori gero eta jende gehiagok egiten du hemen eta edonon. Norengana iritsi nahi dute? Norengan eragin? Hiztunen eta hizkuntzaren arteko osagarritasun handirik ezin sumatu halakoe-tan. Unibertsal izateko, nahiago dute etxekoek ulertu gabe kanpokoe-k ulertzea. Euskal kulturatik unibertsaltasuna beste modu batean irudikatzen dugu.

Kultur politikak, euskal dimentsioaren argitan

Kultur politikak euskaratik pasatzen al dira? Euskaratik pentsatzen al dira kultur politikak? Euskara sektore bat al da? Adjektibo bat, edota substantiboa da kultura den adina? Kultur politiken eta euskal dimentsioaren arteko harremana argitzeke dagoen auzia da. Kultur politikak, kultura sailak administrazio askotan (denetan ez esateagatik) 'hizkuntzarik gabe' agertu izan zaizkigu. Kultura da garrantzitsua, kultura da edukia. Baina non geratzen da hizkuntza? Non geratzen da hizkuntza minorizatu batek beharko lukeen kultur

politika? Izenari dagokionean ez da hizkuntzarik ageri, praktketan, hainbatetan bai, baina ez beti.

Aitortu behar da lurralde mailako administrazioan eta herrietakoan, oro har Gipuzkoan, kultura arduradunen aldetik euskal dimentsioa kontuan hartzen dela, baina inon ez dagoela idatzita edo jasota horrela behar duenik izan. Beraz, Aldundiko eta udaletako teknikari eta arduradunen euskararekiko sentsibilitatearen (edo sentsibilitate ezaren) mende geratzen da euskarazko kulturaren aldeko politikak praktikan jartzea. Nolabait tazituki edota inertziatz onartua dago praktika hori, baina zer gerta liteke eragile horiek aldatzen badira? Are, zer gerta liteke mahai gaineratuko balitz arazo hori? Non eta nola geratzen da bermatua euskal kulturaren aldeko praktika hori?

Aldundian eta hainbat udaletan, ez guztietan, esan dezagun kultura egiten dela, eta euskaraz dena balioesten dela, diru-laguntzetan demagun, emakumeen berdintasunaren aldeko lanak balioesten diren modu berean. Ondoan, euskarearen normalizaziorako sail edo zuzendaritzatik kultur ekimenak ere lagundu eta bideratzen dira. Sarritan euskara sailak dirudi euskal kulturaren gunea, eta ez kultura sailak berak. Dibortzio horrek bi irakurketa maltzur sor ditzake: bata, euskaraz sortzen den kultura oro subentzionatua da, lagundua, dirutza gastatzen da horretan, beste hizkuntzetan ez bezala. Bigarrena, euskaraz sortzen dena kultura txikia da, ez da benetako kultura. Gaztelerazkoa, aldiz, laguntza gabekoa dirudi, eta ez da egia, eta gainera badirudi benetako kultura dela kultura sailetik gestionatzen den heinean. Euskarazko kultur proposamenak euskaragintza badira, berdinean esan daiteke gaztelerazko kultur proposamenak gazteleragintza direla, sortu eragile zibilek edo sortu eta lagundu administrazioek. Hizkuntzarik gabeko kulturarik existitzen al da? Hizkuntzarik gabeko kultur politikarik egitea posible al da? Hizkuntzarik gabeko kultura ez ote da ia gehienetan gaztelerazko kultura? Hizkuntza minorizatu baten beharrak ase al ditzake hizkuntzak zentraltasunik ez duen politika batek?

Hona iritsita, galdera edo gogoeta gaia ekidinezina da: bi hizkuntza, bi kultura, beraz bi kultur politika? Edota, zintzoago: kultur politika bakarra eta berori euskarazko kulturaren oinarritua? Euskarazko kultura zentral izango duen Euskal Kulturaren Saila beharrezkoa al da? Bai kontzeptualki (izen eta guzti), eta baita praktikoki. Jokoan dagoena euskara eta euskal kulturaren etorkizuna da, eta mundu minorizatu horrek behar eta premia propioak ditu, gaztelaren beharren (beharrak baditu bederen bere milaka milioi hiztunekin) antipodetan daudenak. Edozelan ere, orain arte hizkuntza handi izandako horiek kezkatzen hasita daude ingelesaren erasoaldi historikoaren hazkunde bizkorra dela-eta. Eta badute motiborik, badutenez. Gu, gure txikitasun handian, hala jokatzen ikasita gaude, egun gu baino handiagoak diren batzuk baino antidoto gehiago dauzkagu gurean jarraitzeko. Oraingo kultur politiken kontzepzioarekin ez al du euskal kulturak ahultze bidean jarraituko? Ez-indartze bidean? Kolapsatuta? Gurean, normaltasunaren paradigma ez baita euskaraz hitz egiten duena, baizik eta euskaraz hitz egiten ez duen euskal herritarra. Alegia, pertenezia definitzeko ez dago euskararen beharrik, ez dago euskaldun izan beharrik, bai aitzitik gazteleradun. Eta euskaldun guztiak gara gazteleradun edo frantsesdun. Eta ez alderantziz.

Bestalde, euskal adjektiboak ia gauza guztietarako balio du. Elementu estralinguistikoek hartu dute zentraltasuna. Borroka politikoak maizegi izan dira lehen planoan, baita euskararen sustapena helburu duten ekimenetan ere. Hori kaltegarria izan da. Hori horrela izanik ere, hizkuntza eta kulturaren normalizazioa ikuspegi politikotik kanpoan uztea ez da eraginkorra. Hizkuntza eta kultura baten biziberri-tzeak politika jakina eskatzen du, iraunkortasunerako neurri zehatzak hartzea (subsidiaritate paradigma ezartzea, hainbat funtzio eskusibo gordetzea, gune hegemonikoak artikulatzea, lege babes...). Erritmoek ahalik eta kontsentsuatuenak izan behar duten arren, zientzia soziolinguistikoak argitu beharko du zein den unean uneko gutxienekoa.

Hori horrela izanik, paradoxikoa da soziolinguistika arloak duen desegituratze ulertezina. Eragile sendoak badauden arren, ez dute egonkortasunik. Ulertezina da hori gure gizartean.

Euskararen egoera minorizatua eta ahula dela-eta, kultur politikan, askotan, ez da apusturik egiten, zaldi galtzailearen aldeko kiniela betetzea balitz bezala. Eta hor Guggenheim eremua indartu da, kultur politikak usu interes politiko eta ekonomikoen menpe geratzen baitira. Badirudi kulturaren lehen mailan jokatzeko euskara sakrifikatu egin behar dela. Bestela esanda, euskaraz eginda, edo euskaratik eginda, ezin dela lehen mailako izan eta halabeharrez beti izango dela bigarren mailako. Zinemaldian ezin egon daitekeela euskararen presentzia normalizatuagoa, edota hizkuntz minorizatuaren plataforma moduan funtzionatuko lukeen zinemaldi bat ez dela interesgarria, ez dela kultura letra larriz.

Euskararen beraren premien barnetik analisisa egitea beharrezko da euskara eta euskal kultura jokoan dagoen eremu guztietan. Gure beharretatik formulatu behar dugu bisio bat. Berezitua eta lehentasunezkoa izan beharko luke euskal dimentsio horrek, eta horrenbestez kultura sailetik egin politikak, eta ez euskara sailetik. Nolanahi ere, euskara sailek egin duten bidearen aitortza behar-beharrezko da. Euskal kulturaren alde egin dena askotan euskara sailetik egin da bertan ikusi delako, ez kultura sailetan, kultur politika propio baten beharra. Bada auzi hori argitzeko balio dezakeen ideia bat: momentuan egin ahal duguna eta hizkuntzarentzat beharrezkoa dena bi gauza ezberdin dira. Ezin ditugu nahastu bi plano horiek. Une honetan, ordea, sumatzen dugu hizkuntz politiketan kultur dimentsioari arreta gehiago jartzea mese-degarri zaigula. Tokian tokiko errealitateari erreparatu behar diogu lidergoa nondik artikulatu behar den erabakitze-ko. Desiragarria da lidergo partekatura iristea, hizkuntz politikan kultur dimentsioa arreta-gune izatea eta kultur politiketan hizkuntz dimentsioaren araberako trazaketak bideratzea. Badugu zer hobetua alor honetan.

Errealitatetik abiatuta ere, egoera normalizatu baterantz jo beharko genuke eta horrek kultura sailak eragile jokatzeari eskatzen du. Gogoetarako abiapuntu bat da. Bistan da beharrezko dela euskal kulturaren aldeko kultur politika eragin-korra artikulatzea. Alegia, aldez edo moldez, beharrezkoa da elkarren osagarri izango diren hizkuntza politika eta kultur politika artikulatzea.

Esan dezagun artikulazio hori balego eredu normalizatu bat erdietsiko litzatekeela. Euskal kultura kultura den heinean norberegantuko litzateke, eta ez horrenbestez euskal den heinean. Hortik euskarazko kulturaren beraren behar, premia eta lehentasunetan oinarritutako politika abia daiteke. Ez baita nahikoa euskal hori kulturari kendu eta asimetriko diren bi hizkuntzarentzako kultur politika berbera egitea. Hori da eragileek aldarrikatzen dutena.

Bestea da kulturak berak politikaren eremuan duen estatus eskasa. Alderdi politikoen programetan ere ez da kultura garrantzi gehien duen eremua, aitzitik. Kulturaren dena da dirua eskatzea, eta dirua xahutzea; eta diru eskatze hori, gainera, ez da ulertzen behar edo inbertsio modura, «etxerako laguntza» moduan. Ideia hori oso zabaldua dago gizartean. Eta ez da berdin gertatzen kirola subentzionatzen denean, edota industria, edota banka. Kultura prezindiblea da erabat, eta, gainera, dirua xahutu baino ez du egiten.

Kultur politikak izan badira. Badira politikak, politika puntualak, badira laguntzak, baina estrategia orokor bat falta da. Eta oro har emaitzak azkar jasotzeko erabakiak jartzen dira martxan. Hori da eragile sozialek zein administrazioko teknikariek ikusten dutena. Sarritan politikak inprobisatuak direla, eraikin bat zertarako, nola eta beharrik baote dagoen pentsatu aurretik eskuratzen edo eraikitzen dela, demagun.

Gizarte eragileen iritzia da politika horiek ez direla berrikusten batzuetan, eta besteetan oso neurri itxi eta zehatzak markatzen dituztela. Eragileen egitasmoak marko horretara makurtzea beste erremediorik ez du, bestela laguntzarik ga-

be geratuko baita. Alegia, ez direla laguntzak edo politikak diseinatzen gizarteak aurkezten dituen egitasmoen edota beharren arabera, alderantziz baizik. Administrazio desberdinen artean ere ez dago kultura politika bat eztabaidatzeko lekurik. Zer esanik ez administrazioaren eta gizarte zibil autoeratuaren artean jardutekoa.

Administrazioa eta gizarte zibila: harremanak eta bisioa

Nola egituratu bi eragile horien arteko harremana?

Administrazioa bera aldaketa fase batean dago. Plano horizontalagoan jardun beharraz ohartu da, sarean aritu beharraz, kultur eragileen artean diruak banatzeaz gain edo hori baino, kultur eragileen beharrei erantzun eta laguntzea izan beharko luke bere zeregina.

Horrekin, eta neurri batean administrazioaren eta gizarte autoeratuaren arteko talka historikoan arintze zantzuak agertzen diren honetan, bestelako harreman bat planteatzeko unea iritsi da. Administrazioak dio eragileak mesfidantzaz eta aurreiritziz beteta etorri izan direla, eta eragileek diote administrazioak nagusikeriaz jokatu ohi duela.

Ukaezina da elementu estralinguistikoek, bai administrazioaren aldetik bai gizarte zibilaren aldetik, izan duten zentraltasuna. Gatazka politikoaren ondorio txarrek kulturaren ere berebiziko eragina izan dute. Beste ikerketa-gai bat da hori berori ere.

Kultur eremu oso bat artikulatzea ez da erraza eta agian ezta desiragarri ere. Kultur munduan denak sektoreka antolatuta eta ordezkaritza jakinekin aritzeak ez du zentzurik. Bi eremuak beharko ditu: sektore batzuen artikulatzea (industria kulturala den heinean), eta libreago edo atomizatuago dabilen eragiletza eta sorkuntzari bere bidea hersturarik gabe egiten uztea.

Sektorearen barneko harremanaz, esan daiteke euskal kulturaren sektorea bakartzat hartu baino, azpisektoreak zeda-

rritzea dela egokiago. Sektore bereko eragileek, industria sektore klasikoak (demagun, makina-tresnaren industriak) egin ohi duen moduan, bidearen zati bat elkarrekin egin behar dute: nora jo?, zein bisioz eta zein helburuz? Bidearen azken zatian, aldiz, lehiakide izango dira. Nola merkaturatu? Demagun hori erabaki behar dela eta erabakitzen dutela. Ondotik kompetentzian jardungo dute. Sektoreek administrazioarekin izan beharreko harremana ere lankidetzaren ingurutik ikusten da. Berriz ere, industria tradizionalaren eredia: zer behar dituen kalitate hobez ekoizteko, gehiago saltzeko edo dena delakoa elkarrekin erabaki behar dute. Eragile sozialak kexu dira administrazioa beti neurri diseinatuekin eta zer egin behar den erabakita etortzen dela. Beraz, bi planotako dinamika proposatzen da:

- Sektorekako eragileen arteko gutxieneko batasuna, adostasuna.
- Eragile eta instituzioen arteko harreman osasuntsua, berdinetik berdinerara, denen artean egiteko egin beharko den politika hori.

Denak denekin eta denean ados etortzea ez da erraza izango, eta agian behar ere ez da behar. Helmugak finkatu behar dira, horiek lortzeko, denbora eta moduak gorabehera, bide berean abiatu. Helmuga adosteak beldurra ere eragin dezake, horrekin batera bideak erabaki behar direlako eta horrek lehentasunak markatzea dakarrelako. Horretarako, autokritika beharrezkoa izango da, aztertzeko ea euskarazko kulturaren etorkizunaren xedetan jarduten ari garen, edota norberaren erakundearen bideragarritasuna bilatzen, soil-soilik.

Helmuga markatzea estrategikoa da inondik ere. Horretarako, premisak ere jarri beharko dira. Premisaren premisak beharko luke izan ikuspegi zentratu batetik jarduteak: euskaldun izatea munduan egoteko baleko modu bat dela, eta euskaldun izaten jarraitzeko zer den mesedegarri ikustea. Gu gara gure erdigunea. Hori da bisioa adostea. Kontuan hartu beharrezkoa da oinarrizko kontzeptu adostuak izatea

(gramatika konpartitua) eta operatibitate linguistikoa, produktzioa eta kontsumo maila errealak ezagutzeko datu errealak eskura izatea. Administrazioko teknikariek presazko deritzote topagune bat antolatzeari. Gutxien-gutxienik 'aliatu' izan daitezkeen horiekin elkarlana bideratzeko. Zentzu horretan kezka berbera partekatzen dute instituzioetako teknikariek eta gizarte zibilak.

Ondorio gisa, esan, euskal kulturak barren-barrenean dituen premietatik eta indarguneetatik egin behar duela aurrera. Maila operatiboko kontua ere izan daiteke optimizazioa bilatzea, baina oinarrian kontzientzia, euskaldun izateko eta jokatzeko nahia izan ezean, alferrikakoa izan liteke. Dimentsio politiko bat lantzea eta zabaltzea beharrezko da, neurri operatibo edo tekniko hutsek ezin dutelako aitzinari egoera ez-normalduan dagoen kultura bat. Ez da instrumentaltasun kontu bat, ez da kultur politika neurriak aplikatze soilak, ez hori bakarrik: komunitate baten ezagutza lortzea, afirmazio sentimenduak zabaltzea eta maila desberdinetako eragile kontzientziatuak sortzea baizik.

Euskal kulturaren biziberritzearen historiak hori erakusten du, eta gaur egun han eta hemen, herri, eskualde, esperientzia, gune zibil eta publikoetan funtzionatzen duten ereduak horixe erakusten dute: baliabide egokia bai, lan egiteko modu konpartituak bai, baina baita, eta bereziki, euskararen, euskal kulturaren eta komunitatearen kontzientzia politikoa ere.

Euskal kulturgintza biziberritzeko oinarriak eta estrategiak

Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarri batzuk finkatu ditugu azken puntu hauetan. Ekimenak bidaide izan dituen aritu eta adituen ideiak sistematizatzerara mugatu gara. Horretarako eragileen arteko harremanei, euskal dimentsioari eta dinamika kultural autoeratu baten oinarriari ipini diegu arreta berezia. Desafioak identifikatu eta politi-

kak trazatu ditugu, brotxa lodiz, euskal kulturagintzaren eragile desberdinek onar ditzaketen neurriak direlakoan.

Egiaztapen nabariena izan da kulturaren diskurtso propio eta landu bat landu beharrarena. Hurrengo urratsa da horren zabalkundea euskal kulturagintzaren unibertsoan, diseinua xehatzeko eta bereziki egoki jo diren neurri politikoak inplementatzeko. Ikerketa burutzeko egin ditugun elkarriketa eta eztabaida-taldeek bilgunearen premia aho batez nabaritu dute, hori da desafio eta eginkizun politiko nagusia; prozedurak adosteko gune batek modu naturalean lekarke gainera bisioaren inguruko eztabaida ere.

Aurreko ataletan esandako guztia bilduz, estrategia zehatzetan formulatuko ditugu euskal kulturagintza biziberritzeko bideak. Bi eragile multzo nagusiri begira formulatzen ditugu estrategia hauek: kulturagintzako eragile sozialei begira eta eragile publikoei begira.

Aurretik, gogora ditzagun, laburbilduz, egin dugun diagnostikoaren ideia nagusiak, eta euskal kulturagintzaren biziberritzea ulertzeko oinarriak.

1. Euskal kulturagintza da euskarari darion kulturagintza eta euskal hizkuntz komunitatea sinbolikoki elikatzen duen sorkuntza. Berebiziko egitekoa du gure herrigintzan: funtsezkoa da euskara bezalako hizkuntza minorizatu batean bizitzeko bizinahia birsortzeko, hizkuntza komunitatearen iruditeria eta ametsa elikatzeko.

2. Hizkuntz komunitateen dinamikak ulertzen dituen jakintza soziolinguistikoan baizik ez daiteke zentzuz eta arrakastaz pentsatu euskal kulturagintza biziberritzea. Eta horrek eskatzen du kategoriak, kontzeptuak eta sailkapenak hizkuntza biziberritzeko jakintza sakon batetik eta hizkuntzen ekologiaren paradigmatik pentsatzea.

3. Ezinbestekoa da bereiztea lurralde berean ematen diren kultura eremu eta indar desberdinak. Hizkuntza komunitate minorizatu batean funtsezko papera betetzen duen sorkuntza batek eta munduko hizkuntza handienetako batean egiten den produkzio batek ez dute ia zerikusirik, ez duten

merkatu-potentzian, ez betetzen duten funtzioaren mui-nean, ez behar duten edo ez duten politika publikoan. Zentzu horretan oinarritzko bereizketa bat egin behar da hiru kategoria nagusiren artean: berbazko euskarazko sorkuntza, berbazko erdal sorkuntza eta ez-berbazko sorkuntza. Hiru kategoria horietako bakoitzak tratamendu berezitua behar du estrategia sozialen eta politika publikoen aldetik.

4. Berbazko euskarazko sorkuntzak nagusiki eta ez-berbazko sorkuntzako elementu batzuek osatzen dute euskal hizkuntz komunitatearen elikagai funtzioa betetzen duen kulturgintza nuklearra, euskal komunitatea erreferentzia eta helburu nagusi duen kulturgintza. Euskal kulturgintza hau oso elementu sentsiblea da, garrantzi handikoa hizkuntzaren geroarentzat, eta ezaugarri bereziak ditu: dimentsio askotan ahula, kontsumitzeko masa kritiko txikia duena, sorkuntzarako pizgarri bereziak dituena, gauza batzuetan nerbio kultural propioa duena edo ‘genio’ kultural propioa duena, merkatu-baldintzamendu eta gizarte-eragin ezohikoak dituena.

5. Euskal kulturgintza hau, bere ezaugarri berezi horiekin guztiekin, une honetan gizarte eta teknologi aldatetek dartzaten desafio eta aukera berrien aurrean dago. Norbanakoaren konfigurazioan aldatetak gertatzen ari dira, parte hartu eta kontsumitzeko orduan ere bai, eta arlo teknologikoak plaza berria ekarri dio kulturari. Dinamika horiek eta euskararen komunitatearen dinamikak elkarrekin gurutzatuta bakarrik uler dezakegu egoera modu zabal batean. Eta hortik pentsa ditzakegu etorkizuneko bideak.

6. Euskal kulturgintzaren analisi instituzionala edo eragile-analisia egiterakoan, oso kontuan hartu behar da euskal komunitatearen konfigurazioan gizarte-ehunak duen garrantzia. Euskaldun izatearen kondizio soziolinguistikoa berezia da, nahimen, igurtzi sozial eta borondate pertsonal berezi bat eskatzen duena, beste hizkuntza handiekiko hiztunekin konparatuz. Zentzu horretan, euskal izaerak etorkizun gutxi du anomia sozialean isolatutako norbanako es-

tandarren eskeman. Edo eskema horretan soilik. Nolabait, giza sarea, komunitate-ehuna, eta gizarte ekimeneko erakundeen trama berebizikoagoa da, beste hizkuntza eta kultura nagusietan baino garrantzitsuagoa, euskal izaeraren etorkizunaz pentsatzean. Ez dezakegu pentsatu euskal izaeraren etorkizunaz inguruko ohiko gizarteetako eskema instituzional estandarrekin bakarrik.

7. Ildo horretan, kulturagintza eredu parte-hartzailea, giza sarea, gizarte-ekimeneko erakundeen presentzia, ospakuntza komunitarioa... funtsezko elementuak izango dira euskaltasunaren biziberritzean, iraganean izan diren moduan, bai etorkizunean ere. Nolabait merkatu parametro estandarretatik haratago dagoen kultura sorkuntza eta ospakuntza humanizatzailea izateko eta birsortzeko aukera izan du eta du euskal kulturagintzak. Eta beharko du, euskaldun izateko nahimena biziberrituko badu. Jakina, merkatu parametro estandarrek ukatu gabe, horiek baliatuz, eta horietan ere ahalik eta indartsuena izanez.

8. Zentzu horretan mugatuak eta desenfokatuak izan litezke euskal kulturagintzaren biziberritzeko bideak modako bide estandarretan bakarrik ikustetik sortutako estrategiak. Desenfokatu horren adibide izan liteke interneteko sare birtualean salbaidia ikusteko joera berria. Joera horiek ikuspegi sakonago eta zabalagoan txertatu behar dira. Giza sarea, gizarte-erakundetzea eta komunitate-ehuna zaindu behar ditu gure kulturagintzak, etorkizunik izango badu. Eta horrekin batera, internet eremuan eta teknologia berrietan ausart eta sendo txertatu. Gizarte-sarea eta sare birtuala. Biak, lehena oinarri dela.

9. Euskal izaeraren etorkizuna (hizkuntza nahiz kulturagintza) neurri handi batean gertuko gizarte-ehunean jokatzen da. Eta gertuko gizarte-ehun horrek duen potentziala, biziberritzea eta osasuna determinatzailea izango da euskal kulturagintzarentzat. Ez da ingelesaren edo gaztelararen kasu bera. Gizarte mediatizatu, paralizatu edo anomia maila handiko batean hizkuntza handi horiek biziko dira, are gehiago,

beren hegemonia ziurtatua dute. Euskararen zoria, aldiz, gertuko igurtziari eta ehunari lotuta dago neurri batean. Zentzu horretan, potentzial berezia du euskal kulturgintzarentzat herria kultura kontsumitzaile versus herria kultura sortzaile binomioak. Herria sortzaile batzuek eta kultur industria batzuek ekoizten duten ekoizpenaren kontsumitzaile moduan ulertuta soilik, euskararen kultura kolapsora doa. Hori ere beharrezkoa da, baina horrekin batera, herriaren sorkuntza da gurea bezalako kulturen potentziala. Kulturgintzaren ehun herritarra, antzerki taldeena, musika eskolena, bertso eskolena, ikastetxeetako ekimenena, abesbatzena, dantza taldeena sustatzea, elkarrekin konektatzea. Eta, batez ere, aipatutako potentzial herritar askotariko hori jaiaren espazio sinbolikoaren potentzialarekin lotzea. Kulturgintzaren espazio hori aktibatzea funtsezko bidea da euskal kulturgintzaren gerorako.

10. Euskal kulturgintzan estrategia eta arrakasta landu duten eremu batzuek erakusten dute euskal kultur eremuak 'ekosistema' moduan ulertuta eta modu horretan garatuta egiten dutela aurrera. Ekosistema horretan, sortzaileak sustatzea eta zaintzea, hartzaileak integratzea, zaletasuna birsortzeko pausoak ematea, sortzaile eta hartzaileenganako transmisioa, merkatu parametroak doitzeta, eragile pribatu eta publikoen tokia lantzea, sorkuntzaren kalitatea hobetzea, eremuko eragileak artikulatzea... dena da arte bat. Modu horretan funtzionatu duten eremuek garapen berezia izan dute, eta argi erakutsi dute ez dela aski merkatu parametro estandarretan funtzionatzea, ez eta merkatu parametroak eta laguntza publikoak konbinatzea ere. Euskal kulturgintzak beste era bateko ekosistemak eskatzen ditu.

11. Hiru eremu bereiz ditzakegu euskal kulturgintzaren eragile-analisi oso bat egiteko. Batetik, merkatuaren eremua, gure ezinbesteko errealitate eta jokalekua. Bestetik, gizarte antolatuaren eremua, eta eremu horretan nagusiki herri-ekimen autoeraturua, oso modu desberdinetan gorpuztua. Hirugarrenik, administrazioaren edo botere publikoaren eremua.

Euskararen komunitatearen kasuan, bigarren eremua, gizar-te-ekimen autoeratuarena, bereziki garrantzitsua da. Esan liteke berorietatik sortu direla azken 50 urteetako euskararen eta kulturaren berreskurapenerako ardatz nagusi asko (ikas-tolak, kultura mugimenduak, corpora...), eta etorkizunean ere eremu horretan dagoela euskararen komunitatearen ekimenaren eta erdigune sinbolikoaren zati garrantzitsu bat, ahal dela erakunde publikoekin batera eta horiekiko elkarlanean. Hiru eremu horien artean, eta nolabait horiekiko harreman maila desberdinekin, kokatzen da kulturagintza alorreko eragile garrantzitsu bat: euskal sortzailea.

12. Kultur sorkuntza maila askotan sortzen da, auzo edo herri mailako sorkuntza kolektiboetatik hasi eta sofistika-zio maila handiko sortzaile profesionaletaraino. Sorkuntzaren mailakatze eta barreiatze hori da, hain zuzen, euskal komunitatearena bezalako hizkuntza txikien indargunea eta legamia. Zabaltasun horren barruan, garrantzia du eragin eta kalitate maila handiko sortzaileak. Egungo edozein komunitatek behar ditu sortzaile erreferentzialak, beren hizkuntzaren eta komunitatearen sormen-gaitasuna gorenera daramaten sortzaileak. Eragin handiko eduki kulturalak sortuko dituztenak. Jakinaenez, mota horretako artistak ez dira estrategia baten bidez 'landatuta' sortzen. Estrategiek egin dezaketena da lurra prestatu, sortzaileen arteko transmisioa antolatu, aukerak eskaini eta, nagusiki, sortzen dutenei erresonantzia kutzak eskaini.

13. Sortzaileari eta kultura industriei dagokienean, 'merkatu doituaren' kontzeptua landu behar da euskal kulturagintzari begira. Euskal kulturagintzak behar du merkatuaren diziplina. Merkatuak informazio asko ematen du, bera da hartzailearen erabaki txikien plaza (horiek mediatizatuta egonik ere), eta galbahe horretatik pasa gabeko ekoizpen jardunak ibilbide desegokia egiten du luzarora. Ez da ona diru-laguntzen bidez merkatuaren diziplinatik babestutako kulturagintza bat, behar du merkatuaren eguneroko epaia. Bestetik, argi dago hizkuntza komunitate minorizatu, deskulturizatu eta

txiki bateko merkatuak arazo bereziak dituela. Bidea merkatu doitu da. Estatuak alor askotan aplikatzen dute merkatu doituaren ideia, petrolioa, energia eta funtsezko gauza batzuetatik hasi eta arlo periferikoetaraino. Hau da: arau berezi eta berariazko batzuek dituen merkatua, estatu funtsen bidezko joko arau bereziekin. Eta hortik aurrera, lehia. Euskal kulturgintzak ere lehiaren diziplina behar du, berdintasun egoera batean, eta merkatu doitu baten baitan. Kultur esparru edo adierazpide bakoitzerako doitu behar dira merkatu parametroak modu desberdin eta dinamikoan.

14. Hiru eremu horietan, bi dira estrategiak diseinatu eta egikaritzeko eragileak: administrazioa batetik eta gizarte erakundeak bestetik. Euskal kulturgintza biziberritzeko, une honetan beharrezko dira biak, beharrezkoa da bakoitzaren papera kokatzea, eta beharrezkoa da bi eragile-multzo horien arteko adostasun prozesu bat.

15. Batetik, gizarte-ekimenetik sortutako erakunde eta eragileek badute zeregina euskal kulturgintzaren esparru soziala trinkotzen eta estrategia bizigarriak abiarazten. Bestetik, Euskal Herriko erakunde publikoek aukera dute euskal kulturgintza biziberritzeko estrategiak martxan jartzeko. Hori, beste alor askotan gertatzen den moduan, gizarte antolatuaren eragileekin adostuta eta landuta egin dezakete ondoen. Arlo honetan ere, beste gehienetan moduan, gizarte antolatuko indarrekin batera bultzatutako politika publikoa behar dugu.

16. Aurreko helburuak bi pauso eskatzen ditu. Batetik, euskal kulturgintzako eragile sozial eta gizarte-erakundeek beren arteko artikulazioa mamitzea. Eta artikulazio horren bidez, bi elementu sortzea: estrategia propioak eta interlokuzio gaitasuna. Bigarren pausoa da erakunde publikoek artikulazio hori aintzat hartzea interlokutore sozial moduan, eta estrategiak konpartitzeko prestutasuna agertzea, beste alor askotan egiten den moduan. Jakina da lurralde honetan lobby eta eragin talde desberdinak daudela kulturarako baliabideak alde desberdinetara bultzatzen dituztenak. Euskal

kulturgintzaren gizarte-erakundeak interlokutore garrantzitsu moduan hartzeak, noski, eragile politikoek aldetik hau-tu filosofiko eta politiko bat eskatzen du: kultura ulertzeko moduen artean diszernimenduak egitea, eta gogoeta zabalago batean, euskararen biziberritzea elikatzen duen kulturgintza sustatzea helburu politiko moduan hartzea, euskal gizarteari dagokion zeregin funtsezkotzat ulertuz.

Oinarrien laburpen honen ondoren, goazen aipatzera euskal kulturgintza biziberritzeko estrategia zehatz batzuk, ikerketak emandako ideia multzo zabalaren sintesi praktikoena eginez:

1. Euskal kulturgintzako eragile sozialak eta gizarte-erakundeak artikulatzeko pausoak ematea. Artikulazio hori bi mailatan gauzatu beharrekoa da. Batetik, euskal kulturgintzaren esparru bakoitzaren barruan, eta, bestetik, esparru desberdinen arteko eremu orokorrean. Artikulazio horren elementu batzuk badira gaur egun —artikulatua dago bertsolaritza esparrua, edota edizio munduan bada artikulaziorik etab.—, baina beste espazio batzuk falta dira.

2. Euskal kulturgintzaren esparru edo adierazpide bakoitzak bere esparrua ekosistema moduan lantzen hastea eta berori biziberritzeko elementu nagusien plangintza egitea hiru arlotan: transmisioa, sustapena eta jakintza.

3. Tokian tokiko gizarte-eragileen eta tokian tokiko eragile publikoen indarrak norabide horretan jarriz, herri eta auzoetako kulturgile kolektibo eta sortzaileen konexioa sustatzea. Herrietako abesbatza, musika talde, bertso eskola, antzerki talde, sortzaile, musika eskola eta abarren konexioan dagoen potentziala aktibatzea. Horrekin batera, 'jaiaren' espazio sinbolikoaren potentzialak birsortzeko proiektuak sortzea.

4. Maila orokorrean eta esparru bakoitzean, euskal kulturgintzaren belaunaldi-transmisorako bideak sortzea. Batetik, sortzaileak birsortzeko sortzaile-transmisioa bilatuz; bestetik, parte-hartzaile transmisioa bilatuz, bereziki parte har-

tzean oinarritutako adierazpideen kasuan; eta, hirugarrenik, zaletasun-transmisioa bilatuz. Horretarako esparru bakoitzak bere bideak izan ditzake, formazio ez-arautuaren forma desberdinen bidez, formazio arautuak antolatuz, daudenak baliatuz edo beste motatako transmisio bideak jorratuz.

5. Hezkuntza arautuan euskal kulturgintzaren transmisioa txertatzea, ikastetxeen jardun curricularrean. Estrategia hori nolabait aurrekoaren barruan dago, baina badu autonomia propio bat.

6. Euskal kulturgintzaren adierazpide bakoitzean 'merkatu doituaren' parametroak landu, adostu eta modu dinamikoko batean inplementatzea. Horrek aurretik eskatzen du analisi-prozesu bat, eta eragile sozial eta publikoen arteko interlokuzioa sortzea.

7. Euskal kulturgintzaren hedapen edo erresonantzia-kutxa antolatzea Euskal Herriko hedabide-sisteman. Hedabide nagusiek eta herri-eskualde mailakoek joka dezaketen funtzioa aztertu beharra dago euskal sorkuntzaren erresonantzia hobetu eta ziurtatzeko, gure baliabideak arakatzuz, beste herrialdeetako esperientziak aztertuz, lege-aukeretatik hasi eta programetarainoko azterketa zabalean.

8. Euskal kulturgintzari buruzko jakintzaren arloa indartu eta artikulatzea. Euskal kulturgintzari buruzko dokumentazioa, ikerketa, gogoeta, bilketa eta formazioa eskaintzen duten guneak sustatzea, sortzea eta beren arteko elkarlan espazioa eratzea.

9. Aurrekoari loturik, euskal kulturgintzari buruzko ikasketak indartzea, bai belaunaldi berrietako gidaritzari begira, eta bai une honetako eragile politiko, kultur teknikari, dinamizatzaile, irakasle eta abarrei begira.

10. Euskal sorkuntzaren edukiak internet sarean eta teknologia berrietan txertatzea. Estrategia hori presente egon da azken urteetan eragile publiko eta sozialen kezketan, eta ibilbide laburra egina duen arren jarraitu eta sakondu beharrekoa da.

11. Euskal kultur-gintzaren kanpo-hedapena kuantitatibo eta kualitatiboa lantzea. Euskal lurraldeko erdal komunitatei, hau da, biztanle gehienei, euskal kultur-gintzaren hedapen kualitatiboa helaraztea eta mundu mailako presentzia guneak lantzea.

12. Euskal sorkuntzaren agertoki unibertsal iraunkor bat sortzea, prestigio handiko proiektu kultural-arkitektoniko batean. Agertoki unibertsal diziplinarteko batek katalizatzaile papera joka dezake sortzaileentzat, hartzaileentzat, proiektu batzuetarako harreman-gune moduan, auto-irudiaren aldetik, euskal komunitatearen bisibilitatearen aldetik eta nazioarteko proiektzio moduan. Une honetan euskal kultur-gintzak behar dituen hainbat katalizazio bideratzeko formula egokia izan liteke.¶